



Asier OLAIZOLA

Umore Ona elkarteak omenaldia egin dio

→ 32

2014ko urtarrilaren 22a | XXXIV. urtea | 606. zenbakia

**Inauteriak → 23**

Zubieta, Aurtitz, Ituren, Sunbilla eta Leitza

**BERA → 11**

Herrilurretan baratzeak eskatzeko epea zabalik

**URROZ → 21**

Euskolabel aizkora sariko bi saio jokoan igandean

**LEITZA → 34**

Espainiar bandera jartzera behartzen du sententziak

**BAZTAN → 37**

Autokarabanendako zerbitzuak Lekarozen

**GIZARTEA → BIZTANLERIAREN BILAKAERA**

## Eskualdeko 10 udalerritan, datu historikoen arabera, 2013ko urte hasieran erregistratu dituzte biztanleria kopuru minimoak

ERREPORTAJEA → 4-5

1900-2013 denboraldian, Arano, Arantza, Areso, Beintza-Labaien, Bertizarana, Ezkurra, Ituren, Oiz, Saldias eta

Sunbilla dira biztanleria kopuru minimoetara jautsi direnak. Maximoetan daudenen artean Bera, Sara eta Senpere daude.

### DAMBA musika taldea



## Emakumearen indarrarekin bestarako proposa den musika

ELKARRIZKETA → 3

Euskal Herriko bazter aunitzetako eta Kubako musikariek osatzen dute Damba taldea. Horien artean dira Estitxu Pinatxo beratarra, Kristian Amorena saratarra eta Josu Erbiti leitzarra. Berriki *Hautsi... eta izan zaitez zu* izeneko bigarren lana kaleratu du taldeak.

### Profesionaletako lehenbiziko txapela jantzi du Xanti Utergak

Binakako Erremonte Txapelketa ofiziala irabazi du Xanti Uterga doneztebarrak Ion Etxeberria lagun duela. Profesionaletan hamabi urte eman ondotik eta azken urtean lan istripu larri baten ondorioz kantxetatik kanpo egon eta gero, lehen txapela lortu du Utergak. «Espero dut azkena ez izatea» zioen Doneztebeko aurrelariak.

→ 45



### ELIZONDON

#### Polizi-etxe berria Foruzaingoarentzat

Eskualdeko 27.000 bat bizilaguni zerbitzua ematen dien Foruzaingoaren polizi-etxe berria inauguratu dute. Yolanda Barcina presidentea bertan izan zen, ez ordea Bilduko ordezkariarik. → 35

### ZOKKETAK → 52



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra

# C.A.P. ZENTROA

**HOMOLOGATUA**  
**HASIERAKOA-JARRAIA**  
**MERKANTZIAK**  
**BIDAIARIAK**



## TRANSPORTISTA

**TITULUA** lortzeko  
12. Ikastaroa hasiko dugu

Araudia aldatu baino lehen  
azken aukera izanen duzu.  
**APROBETXATU!**

**Azterketa: MAIATZA bukaeran**

Ikastaro intentsiboak:

- Asteburuetan 8 orduz
- Astegunez egunero 3 orduz

Klaseetara joanez gero, aprobatu  
kopuru handia.

2013an **%82**ak **gainditu** zuen

Pintor Basiano, 5 (Iturruma) - IRUÑEA

T. 680 11 06 51 (Migeltxo)  
948 26 13 15 (CAP zentroa)

**Zure aurtengo planetako bat azterketa hauetakoren bat gainditzea baldin bada...**

Cambridge  
**KET**  
Key English Test

Cambridge  
**PET**  
Preliminary English Test

Cambridge  
**FCE**  
First Certificate in English

Cambridge  
**CAE**  
Certificate in Advanced English

Cambridge  
**CPE**  
Certificate of Proficiency in English



# UNIVERSITY OF CAMBRIDGE



### Ikastaro trinkoa edo erditrinkoa

- Hasiera: otsaila
- Iraupena: azterketaren egunera arte
- Ordutegi malgua

Jarri gurekin harremanetan  
eta elkarrekin diseinatuko dugu  
zure beharretara hobekien egokitzen den formula

**LAGUNTZEN AHAL  
DIZUGU!!!**

acQrn  
Quality Language Learning  
www.acornlanguages.com

Koskontako bidea, 11. behea - LESAKA Tel. 948 637 135 E-mail: info@acornlanguages.com



Lau urteko ibilbidearen ondotik, bigarren diskoa kaleratu du Damba musika taldeak: *Hautsi... eta izan zaitez zu*. Doinu dantzagarria duten hamar kantekin osatu dute eta

denak euskaraz dira. Gainera, autoekoiztua izan da, grabaketa, nahasketa eta masterizazio lanak ere eurek egin baitituzte. Euskal Herriko bazter aunitzetako kideek eta Kubako

musikariek osatzen dute taldea, eta tartean dira eskualdeko hiru: Kristian Amorena sarratarra, Estitxu Pinatxo beratarra eta Josu Erbiti leiztarra.

Kristian AMORENA, Estitxu PINATXO eta Josu ERBITI | Damba musika taldeko kideak

# «Euskarazko lan honekin Euskal Herri guztira ailegatu nahi dugu»

G. PIKABEA

## Nolako taldea dugu Damba?

Taldea izpiritu bat da: konpartitzeko, ongi pasatzeko, aldarrikatzeko topagune bat, *Babel* bat non hizkuntzak eta musikari bakoitzaren jatorria nahasten diren. Horrek estilo propio bat sortzen du kantak egiterakoan.

## Sorreratik nolako bilakaera izan du taldeak?

Lau urtez taldearen formatua aldatuz joan da. Hamaikako formula desagertuz joan da eta bederatziko formatuan zentratu gara, errazagoa delako eta baldintzak ikusiz egokitu behar izan dugulako, baina beti taldearen esentzia eta indarra mantenduz. Hagitz blokesendoa lortu dugu. Behar duen egonkortasun eta heldutasun puntura ailegatu da taldea.

## Zer aurkituko dugu azken diskoan?

Besta giroko doinuak, freskotasuna eta musika bizi bezain alai. Aitziber eta Estitxuk [ahotsak] indar berezia ematen diote lanari. Bi abeslarien arteko kimika hagitz handia da, eta nabari da horrek indar berezia ematen diola diskoari, baita zuzenekoei ere. Energia handiko pertsonak dira eta dohain berezia daukate jendearekin komunikatzeko. Gaztetasunak errebeldia puntu bat ere ematen dio taldeari. Jendeak entzuten bagaitu eta gurega-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kristian Amorena, Estitxu Pinatxo eta Josu Erbiti Damba taldeko kideak.

na hurbiltzen bada, sorpresa ona hartuko duela uste dugu.

## Zergatik izen hori diskoari?

Mezu zuzena eta argia eman nahi izan dugu, hautsi eskemak, errutina, estereotipoak eta benetan izan zaitez zaren bezala. Urte guttitan norbera bere nortasuna galtzen ari da, bidaiatuz konturatzeko gara globalizazioak norberaren berezitasuna ezabatzen duela eta hori tamalgarria da. Norberak den eta egiten duenaz harro sentitu behar du.

## Letretan eguneroko gaiak jorratu dituzue...

Testu irekiak dira, eta gai sozialak jorratu ditugu. Emakumeen indarra pla-

## DAMBA TALDEA

Estitxu Pinatxo beratarra (ahotsa), Aitziber Estangak (ahotsa eta gitarra), Luis Puertok (ahotsa eta tronpetak), Kristian Amorena sarratarra (perkusioa eta bateria), Xabi Albisturrek (gitarra), Sam Balderdik (ahotsa eta teklatura), Mathieu Harambourek (baxua), Josu Erbiti leiztarra (bateria eta tronboia), Peio Noisettek (soinu teknikaria) eta Nerea Hernandezek (komunikazioa) osatzen dute Damba musika taldea.

zaratu nahi izan dugu bereziki letretan eta bai diskoaren azalaren kolorean ere. Kolore morea da, emakumearen kolorea eta indarra nabarmendu nahi izan ditugu eta emakumeen egoera soziala argitara ekarri. Horrez gain, estresa, eguneroko betebeharrak, maitasuna, droga menpekotasuna, kalean lan egiten duten artisten eta aitarengandik urruti bizi izan den haurraren inguruko abestiak ere baditugu. Abesti irekiak dira norbera bere hausnarketa egin ahalizateko.

**Lehen disko kanta gehienak gaztelaz eta oraingoan denak euskaraz. Zergatik?**

Lehenengo disko abeslaria madrildarrazen eta guretzat abestu behar duzun horri zentzua ematea garrantzitsua da. Duela bi urte hasi ginen Miren Amurizarekin letrak lantzen, baina ez ginen nahi genuen lekura ailegatu eta horrek ez gintuen asetzen. Ondotik Elenak bertze bide bat hartzea erabaki zuen, eta Estitxurekin jarri ginen harremanetan. Orduan hasi ginen euskarazko letrak lantzen eta oraingoan letrari behar den zentzua ematea lortu dugula erran dezakegu.


## Kanpoan aunitz ibili eta arrakasta izan duzue. Zer sentitzen duzue?

Euskal Herriko kanpo denente ibili gara, Ekialdean, Afrika iparraldean... eta oraindik ere segitzen dugu. Gure berezitasun bat gauden lekuaren arabera, euskaraz, gaztelaniaz, katalanez eta gauza batzuk frantsesez komunikatu eta kanta ditzakegula da eta tokian tokiko publikoarekin konektatzen saiatzen gara.

## Euskal Herrian nolako erantzuna duzue?

Euskal Herrian daukagun harrera ona da, baina oraindik ez gara aski ezagunak. Egiten dugun musikak oihartzun handiago merezi du eta euskarazko lan honekin Euskal Herriko txoko guztietara ailegatu nahi dugu gure musika zabalduz eta zuzenekoak eskainiz.

2012ko urtarrilaren 1ean  
35.254 biztanle



GIZARTEA → BIZTANLERIAREN BILAKAERA

# Eskualdeko biztanleria datuak, azken neurketetan ere argi gehiegirik ez

Zugarramurdi (-23 bizt.) eta Ezkurra (-13 bizt.) beherakada handiena jasan duten herriak

Errolda datuak eskuetan, batuketarik egin ezina da eskualdeko herri aunitzen buruhaustea. Berriki kaleratutako neurketen arabera, 2013 hasieran 27 herrietatik 18k aurreko

urtean baino herritar gutxiago zituzten erroldan, eskualdean denera 261 guttiago zenbatu dira. Gorakada nabarmen bakarra Elgorriagan izan da, 20 biztanle gehiago batuta.

## E. IRAOLA

Urte hasierarekin batera kaleratzen dituzte errolda datu ofizialak. Bertan, herri bakoitzean aurreko urteko urtarrilaren 1ean erroldatuta zeuden biztanleen kopu-

rua zehazten da. Hala, 2013ko urtarrilaren 1eko datuak eman dituzte berriki jakitera eta eskualdean, azken urteetako joerari eutsiz, beheiti doa datu dantza. TTIPI-TTAPAREN eremuko 27 he-

rrietatik 9k bakarrik lortu dute biztanle kopurua igotzea. Zehazki, Bera, Donamaria, Elgorriaga, Etxalar, Goizueta, Sara, Urdazubi, Urroz eta Zubietan izan da goraldia. Igoera nabarmenik ez or-

UDALERRIA	Biztanleria		
	2012 urtea	2013 urtea	Aldea
ARANO	121	120	-1
ARANTZA	645	634	-11
ARESO	276	271	-5
BAZTAN	8.035	7.974	-61
BEINTZA-LAB.	242	240	-2
BERA	3.798	3.829	31
BERTIZARANA	628	614	-14
DONAMARIA	436	437	1
DONEZTEBE	1.694	1.681	-13
ELGORRIAGA	205	225	20
ERATSUN	160	159	-1
ETXALAR	818	829	11
EZKURRA	164	151	-13
GOIZUETA	758	763	5
IGANTZI	634	627	-7
ITUREN	518	513	-5
LEITZA	2.916	2.889	-27
LESAKA	2.807	2.784	-23
OIZ	155	144	-11
SALDIAS	118	114	-4
SARA	2.500	2.564	64
SENPERE	5.865	5.707	-158
SUNBILLA	665	627	-38
URDAZUBI	378	380	2
URROZ	180	181	1
ZUBIETA	295	316	21
ZUGARRAMURDI	243	220	-23
<b>ESKUALDEAN</b>	<b>35.254</b>	<b>34.993</b>	<b>-261</b>

DATUAK: IEN ETA INSEE

■ Biztanleria galera izan duten herriak.  
■ Biztanlerian gorakada izan duten herriak.

dea, biztanleriaren %9,76 ko igoera izan baitu gehien hazi denak, Elgorriagak; 205 biztanle izatetik 225 izatera iritsi dira.

## INOIZKO DATURIK BAXUENAK

Txanponaren beste aldean, Arano, Arantza, Areso, Beintza-Labaien, Bertizarana, Ezkurra, Ituren, Oiz, Saldias eta Sunbilla daude. 1900 urtetik honat izan dituzten errolda daturik baxuenak bildu dituzte 2013 hasieran. Datuak kezka-garriago bihurtzen dira, herririk kaltetuena, au-

## DATUA

# 10

**HERRIK**  
historikoki bildutako herri-  
tar kopururik baxuena  
erregistratu zuten 2013ko  
urte hasieran.

rez ere, biztanleria tasa baxuena zutenak direlako. 300 biztanletik beheitiko bederatzik herri daude eskualdean eta hauetatik zortzik galdu dituzte herritarrek. Be-

DATUA

# 1920

URTEAN

jasotzen dituzte daturik altuenak eskualdeko 7 herriek, egungo datuak ia bikoiztuz

herakada handiena jasan dutenak, Zugarramurdi eta Ezkurra izan dira, 23 eta 13 biztanle gutxiagorekin, hurrenez hurren.


GIBELERA BEGIRA

Historian nahi baino urte gehiagoz egin behar da gibelera eskualdeko zenbait herriren goraldiak ikusteko. Eskualdeko 7 herritan adibidez, 1920an jasoak dira daturik altuenak: Arano, Arantza, Areso, Bertizarana, Donamaria, Eratsun, Igantzi eta Urrozen. Orduetik aurrera, sorgin gurgpila bilakatu da herri hauentzat biztanleriari ezin eutsia.

60. hamarkadaren bueltan kanpotarrak erakarri eta bertakoak herriaren geratzea ahalbidetu zuen eskualdeko industriak izandako goraldiak. Ez zuen luzaroan iraun ordea, sektoreak aldaketa sakona bizi eta automatizazioak lanpostu murrizketa eragin zuen. Egungo krisiak ere ez du lagundu, Baztango herriak ere jo ditu gogor. Horrek, jendea **Gipuzkoara eta Nafarroako beste inguruetara joatea** eragin du.

Ez dute hala ere eskualdeko egoera makurraren bertan bizi. Basaburu ttikia, Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdi dira daturik beltzenak biltzen dituztenak. **Sortzeek heriotzak orekatzeko gaitasunik ez eta erakarpen gaitasun urria** dute.

ESKUALDEKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA



Bortzirak eta Sara-Senpere izan dira denbora tarte honetan biztanleria igo edo mantendu duten bakarrak, bertze guztietan beherakada izan da eta herri ttikienak izan dira kaltetuenak.

GORANTZ EGIN DUTENAK

**Sara eta Senpereko** bizilagun kopuruak nabarmen egin du goiti azken hamarkadetan. Lgoera horretan, eragin handiena izan duena **kanpoko jendearen etorrera** izan da.

Bortzirietako datuei erreparatu gero, 1981etik honat biztanleriari eustea lortu duela erakusten digu grafikoenak, baina egiaz, **Beran** bizi izan duten gorakadak ahalbidetu du hori, **50. hamarkadatik honat ia %40 hazi** baita. Arantza, Etxalar, Igantzi eta Lesakan beheiti egin dute datuek, batzuetan nabarmenago bertzeetan erreskan. Berako kasuan, Irungo hurbiltasunak eta Alkaiaga-Zalaingo industria guneak eskaintzen dituen lan aukerak azaldu dezakete bizi duen goraldia.

Malerrekan berriz, **Doneztebe** salbuespena da. Azken urtean, 13 biztanle guttiago dituen arren, **1960ko biztanleria kopurua** (836 biztanle) **bikoiztu** egin du (1.681 biztanle).

HISTORIKOKI ERREGISTRATUTAKO KOPURU MAXIMOAK ETA MINIMOAK

UDALERRIA	Bizt. kop. maximoa	Bizt. kop. minimoa
ARANO	501 (1920 urtea)	120 (2013 urtea)
ARANTZA	1.162 (1920 urtea)	634 (2013 urtea)
ARESO	540 (1920 urtea)	271 (2013 urtea)
BAZTAN	9.776 (1940 urtea)	7.501 (2001 urtea)
BEINTZA-LABAIEN	704 (1900 urtea)	240 (2013 urtea)
BERA	3.829 (2013 urtea)	2.360 (1950 urtea)
BERTIZARANA	936 (1920 urtea)	614 (2013 urtea)
DONAMARIA	736 (1920 urtea)	373 (1981 urtea)
DONEZTEBE	1.694 (2012 urtea)	612 (1900 urtea)
ELGORRIAGA	268 (1999 urtea)	179 (1991 urtea)
ERATSUN	468 (1920 urtea)	160 (2012 urtea)
ETXALAR	1.430 (1900 urtea)	812 (2012 urtea)
EZKURRA	551 (1950 urtea)	151 (2013 urtea)
GOIZUETA	1.407 (1930 urtea)	758 (2012 urtea)
IGANTZI	714 (1920 urtea)	591 (1991 urtea)
ITUREN	635 (1910 urtea)	513 (2013 urtea)
LEITZA	3.262 (1981 urtea)	1.423 (1897 urtea)
LESAKA	2.976 (1981 urtea)	2.285 (1940 urtea)
OIZ	239 (1940 urtea)	138 (2013 urtea)
SALDIAS	371 (1900 urtea)	114 (2013 urtea)
SARA	2.564 (2013 urtea)	1.831 (1800 urtea)
SENPERE	5.865 (2013 urtea)	1.980 (1800 urtea)
SUNBILLA	1.090 (1950 urtea)	627 (2013 urtea)
URDAZUBI	647 (1910 urtea)	359 (2006 urtea)
URROZ	656 (1920 urtea)	180 (2012 urtea)
ZUBIETA	633 (1930 urtea)	285 (2001 urtea)
ZUGARRAMURDI	616 (1910 urtea)	211 (2011 urtea)





**Nire txanda**  
Zuriñe ZUBILLAGA

## Solasean

**P**entsamendua, ahotsa, pertsonak, harremanak, beharrak, nahiak, desioak, bihotza, nor-tasuna, herria eta hitza. Mintzatu, hitz egin, berba egin, jardun, iharduki, elekatu, solastu; hitzarekin jolastu, hitz eginez jolastu. Gauza ederra da hitzarekin jolastea, albokoarekin banatzea. Ederra da bertsotan, literaturan, kantuan, antzerkian; ederra da kalean, etxea, elkartean, edo ohean; ederra da lagunarekin, bikotearekin, haurrekin edo amonarekin; ederra da Zumaiian, Bermeon, Hazparnen edo Lesakan. Ederra da. Jolasa ez delako umeen kontua bakarrik, badelako ere gazteena, helduena eta agureena, solas gaitzean. Gaitzean solas geure herrian, geure artean, eta geure hizkuntzan. Hitzak eta hotsak, ahaztu lotsak; mintza ezazu mantso, gaur eta atzo; auzoz auzo, herriz herri, barra-barra, zirri eta zarra.

«Hitzak eta hotsak, ahaztu lotsak; mintza ezazu mantso, gaur eta atzo; auzoz auzo, herriz herri, barra-barra, zirri eta zarra»

**Ezpala**  
Aitor AROTZENA

## Marea gora, marea behera?

**T**antaz tanta hornitutako itsasgora ez dago gelditzerik. Alferrik dira debeku-hesiak, alferrik atxilotze eta espetxeratze-malekoiak: Itsasoak berea dena bereganatzen du. Baina Itoizek *Marea gora, marea behera* kantatzen zuen eta urteak joan, urteak etorri, ilbeltzeko ekaitzaren ondotik barealdia dator, hurrengo aparaldiaren esperoan. Ez ote dugu aurtengoan natura irauliko?

## Nabarmentzekoak



**Xanti UTERGA**  
Doneztebarrak lehen txapela

2013. urtea kasik jokatu gabe eman zuen, istripu larri baten ondorioz, baina urteko azken egunean profesionaltako lehen txapela lortu zuen, binakakoa, lonekin bikote eginez.



**Asier OLAIZOLA**  
Goizueta omendua

Oraindik Garferekin segitzen badu ere, goi mailako pilota binakako bi txapelekin utzi du, kasik 18 urtez ari ondotik. Herritarrek omenaldi beroa eskaini zioten urtarilaren 4an.



**Gorka URTASUN**  
Eguberrietako laugarrena

Eguberrietan frontoi laburrean jokatzen den buruz buruko txapelketari neurria hartu dio iruritarrek eta laugarren txapela lortu du laugarren finalean. Inork ez du hainbertze lortu.

**Atzera begira → 2004.01.22 / TTIPI-TTAPA 366 zk.**



## Lamixine Antzerki taldea hamargarren urteurrena ospatzen

Berako Lamixine Antzerki Elkarteak hamar urte bete zituen 2004an eta urte hasieran *Oroimenak eta...* emanaldi berezia eskaini zuen orduko aktoreekin eta garai batekoekin Kultur Etxean. Sorreratik antzerki elkarteko kide zen Joxelu Berasategik aipatu zigunez, «hamar urteotan ikasitakoa eman nahi diegu ondotik heldu direnei». Beratarrek errandakoaren arabera, «antzezle eta ikusleen arteko hurbiltasuna bilatu dugu beti eta gero eta gehiago norabide horretan goazi. Ez dadila izan 'gu hemen gaude eta zuek hor zaudete' baizik eta jendearen inplikazioa bilatzea, beraiekin nahastea, hurbileko gauza izatea».



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia  
**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugararmurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....40€	Europa	.....59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....34€
Ipar Euskal Herria	.....59,50€	Amerika eta Australia	.....124€	Leitza	.....17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara  
Mankomunitateak diruz lagundua

## Kolaborazioak

### AMETSetik errealitatera

Ainara MAIA URROZ

Egoerak beste aldean jarri ninduen, eta bertsolari txapelketa nagusiko finala pantailaz eta internetez bizitu nuen, goizeko konexioak huts egin bazidan ere EITBn, arratsaldekoa oso osorik ikusi nuen [www.bertsoak.com](http://www.bertsoak.com)-en.

Ametsetan bezala iratzarri nintzen goizean goize ene maitearekin amets polit batetik eta errealitatean bakarrik nengoela ohartu nintzen, lan-egoe-rak hala behartzen gaituela, hura Eslobakian eta ni, berriz, Txekian. Ametsetan bezala piztu nuen ordenagailua atzerrian finala ikusteko irrikitan, baina interneteko konexioa eteten zen aldika, eta egoerak urduritu ninduen neure bakardadean, ezin dut derrigortu inor maita nazan entzun niolarik Unai Iturriagari. Aitor Sarriegik, berriz, konexio eta deskonexio artean, bata bestearen mina onartu behar dugula esan zuen. Ejem, bai, hala da, Unai, Aitor...

Bazkalondorengo kafearekin batera, konexioa hobeagoa zen, eta saio osoa etenik gabe entzun ahal izan nuen, kartzelakoak eta bestelakoak. Buruz burukora duela lau urteko bi bertsolari berberak iritsi ziren: Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio. Sudur gorria jantzi zuten eta irribarrea ezkutaleku, ene bihozmina goxatzea lortu zuten. Penak ahaztuta, sudur gorria jantzi eta bisitan joango natzaizue alaitzeko gure bizitza.

Altzoa edo magala da helduok dugun seaska, eta definizio hori gustatu zitzaidan, milesker, Maialen. Pena pixka bat hartu nuen txapela Maialenen buruan ez ikustean bigarrenez, baina gero pentsatu nuen bertsolari txapelketa ez dela nolanhiko lehia, ez dela beste edozein lehiaketaren antzekoa. Bertsolari txapelketa batean ez dagoela galtzailerik eta denok gara irabazle, eta batez ere BECeko finalean zortzi txapeldun ikusi nituela oholtzan»

Txapela Ametsen buruan ikusteak itxaropenez bete zuen ene bihotza, eta beharbada ametsak errealitate bihur daitezkeela ohartu nintzen, benetan horretan sinesten badugu eta gure bihotzean maitasuna besterik ez dagoen bitartean. Horregatik ametsetan bezala, afaldu eta ohera joan nintzen ametsetan murgiltzera, beharbada eta seguru ene maitearekin ezkontzeko eta bizitzeko ametsa errealitate bihurtuko dela pentsatuz. Aberrira itzultzeko garaia dut, hemen atzerrian bihotzaren zati handi bat uzten dudalarik, halabeharrez eta pezez.

«Bertsolari txapelketa batean ez dagoela galtzailerik eta denok gara irabazle, eta batez ere BECeko finalean zortzi txapeldun ikusi nituela oholtzan»

### Nafar Gobernu aurrerakoirantz?

German GORRAIZ LOPEZ (Otsagabia)

Barcelona-Jiménez irudikatutako destopaketaren zeremoniaren antzezenak, Foru Erkidegoan UPN eta PSNek ezarritako "navarrista doktrina"ren kitapena ekarriko du, zeren, "krisiaren baita ere III. Errepublikako bukatzen den Prozesu Eratzaileko hastapenaren alternatiba politiko, ekonomiko eta sozialeko sorra" nortasun-ezaugarri bezala izango lukeen Nafarroa-Nafarroako Ezkerreko Junta Errepublikanoa Ezker Errepublikanoa, (Enrique Villareal *Drogas*-en hitzetan), nafar politiko agertokian sartu orduko, barne-borroketa odolustutako eta orain arte bi fakzio bateraezinetan (UPN eta PP) banatutako eskuin nafarraren alternatiba erreal oldarra dakarte.

Aipaturiko alternatiba aurrerakoi horrek, "Barcelona-ren gutxiengoko Gobernuaz jazarpeneko eta eraisteko estrategia" eta PSN-ak, Nabai-k eta IU-k osatutako "Aurrerakoi Gobernu hipotetiko batengatik" ordezteko xedea izango lituzke. Gobernu horrek "Eskubideko Estatu sozial eta demokratiko" deitua-ren indartzeari eta 1978ko "Karta Handia"ren 4. Xedapen Iragankorrean aurrez ikusitako kontsulta-referendumen gauzatzeari lehentasuna emango lieke.

Euskarari dagokionez, "Lingua Vasconum Primitiae"aren egoera kezagarria dela ezin da ukatu, zeren Nafarroa Oinezaren oihartzun mediatikoaz gain, errealitate gordinak frogatzen du Nafarroan euskararen hedapena geldialdirantz doala, azken 15 urteotan gorakada ñimiño bat gertatu bada ere. Nafarroako euskararen egoera zalantzarria ikusirik, gogoeta sakonaren eta kritika eraikitzailearen beharra badagoela ondorioztatzen da, zeren euskararen ahuleziak euskaraz bizitzeko konpromisoa hartzeko eskatzen digu, hots, euskaldunok, erabiltzen dugun euskara gaurkotu, hobetu eta bere erabilera areagotu eta erdaldunok, euskara ikasteari gogotsu ekin, euskararen erabileran baitago etorkizunaren giltzarria.

Bestalde, nahiz eta, UPNek 1986an ezarritako «Ley del Vasculence» legeak indarrean mantentzen zituen zonifikazio linguistikak, Nafarroako parlamentuan "gehiengo absolutua" duten alderdiek -UPN eta PSN-, behin eta berriz mantentzearen alde agertu, "Aurrerakoi Gobernuak" euskararen erabileraren normalizazioa lortzea premiazko xede gisa ezarriko du, euskararen sustapenerako aurrekontuak areagotuz eta diskriminazio positiboak deritzona berrezarrit. Horretaz gain, "zonifikazio linguistiko" berria ezarriko du, Nafarroako zona linguistikoan gaurko kartografia birdiseinatuz (bide batez, D ereduko ikastetxeen mapa erradiala hedatuz), euskara eguneroko bizitzaren arlo guztietan ikusgai eta Nafarroan bizi garenontzat euskara ondasun kulturala eta batzeko tresna bilaka dadin.

«Errealitate gordinak frogatzen du Nafarroan euskararen hedapena geldialdirantz doala»

## Irakurleak mintzo

### 'Doktrinatzan zuen hezkuntza eredu baten istorioa (Iribas jaunari eskainita)

Marga ERDOZAIN  
(Doneztebe)

Iribas jauna, bai D ereduak "doktrinatzan du" eta gainera irakasgai guztietan egiten du. Matematiketan gure seme-alabek ekuazioak eta hiruko erregelak egiten jakiteaz gainera tapoi solidarioak baten ere badakite. Heziketa fisikoa ere "doktrinatzan" ditu eredu honek, kiroltasunez herriko elikagai bankurako gol solidarioak markatzen dituztelako. Naturan eta Historian, uf, hor bai "doktrinamendua" badutela. Mapetako mugen gainetik (mapa horiekin tematua zaude zu, Iribas jauna), gurek badakite nondik heldu diren, bere kulturaz ernegatu gabe eta mugarik gabeko eta interkulturala den munduko hiritarrak direla barneratzen dute. Musikan, Iribas jauna, musikaren "doktrinamendua" beharrezkoa da, bere txirulen magiaz gure seme-alabek eskualde bat sendetzea lortzen baitute. Hiritartasunetarako Heziketan ere "doktrinamendua" badago. Gureak, neskak (eta ironiarik ez dago), ijitoak, beltzak, hispanoamerikarrak, arabiarak, homosexualekin... hazi eta hezten dira, inor baino inor ez dela ikasiz: kultura, arraza, aukera

sexuala, erlijiosoa... ezberdinak errespetatuz. Teknologian eta Plastikan ere D ereduak "doktrinatzan du", xaboi eta jorgurt poteekin edertasuna sortzen baitakite; ikasgela horietatik etorkizuneko arkitekto, injineru eta artistak aterako dira. Hizkuntzak: Frantsesa, Ingelesa, Gaztelania, Euskara eta Latina, hauek ez ukitu, Iribas jauna, ez ekarri TIL edo antzeko itxura duten inolako ereduri arrarorik. Gure seme-alabak, ondo apunta ezazu, Batxilergo pasatzen dira B1 Frantseseko, Ingeleseko eta Euskarazko tituluak lortuta. Baina, aldi berean, gozaten dute Cervantesen hizkuntzan idatzitako Nerudaren poesia adituz. Gureak Sarrionaindia eta Atxaga irakurtzean hunkitzen dira eta hegaka ere igotzen dira Amets Arzallutsek eta Maialen Lujanbiok kantatutako bertsoen olatuetara. Eta orain komatxoak kenduko dizkiot "doktrinamendua" hitzari eta HEZIKETA! bihurtuko dut, bai hizki handiz eta mirespenarekin!. Iribas Jauna, orain aditzak deklinatzen erakutsiko dizut: Nik, D ereduak amak, hezten dut, D modelo hezten du, guk (guraso eta Dereduko irakasleek) hezten dugu, haiek (gure seme-alabak) Euskaraz hezten dira. Ez ditut bigarren pertsonak ahaztu: zuk, Iribas, zuek, Barcina eta gainerakoak zer egiten duzue? hezten al duzue? edo jendea gezurrak erranez nahasten saiatzen zarete? Murrizketa gehiago ez baduzue egiten eta, D ere-



**Bota bertsoa**

Julen ZELAIETA (Bera) • Doinua: Habanera

### Sagardotegi garaia abiatu da

Sagarrak biltzen pasatu  
Iraila eta Urria,  
handik ta hemendik hornitu  
aurtengo uzta urria.  
Denak dolarean sartu,  
prentsari hartu neurria,  
zukua denborarekin  
bere puntuan jarria.  
Kupeleratzeak ere  
du lan ikaragarria  
kanpotik ongi garbitu,  
parean apaingarria,...  
sagardozaleek ase  
dezakegu egarria  
hasi berria delako  
txotx denboraldi berria.

Lekarozen nahiz Lesakan,...  
gurean batzuk badaude,  
inguruan gelditzea  
ederra dugu, halare,  
bertze batzuk "bus"-a hartu  
ta Gipuzkoara alde  
Hernani ta Astigarraga  
jendez lepo, gohi eta behe.  
Sarritan norbanakoa  
bihurtzen denean talde,  
sagardoa ez da soilik,  
goxatzen duen hedabe.  
Beraz,neurrian hartu ta  
beti buruaren jabe  
aurten ere ez ahantzi:  
ongi pasa, pasa gabe!

dua ez baduzue itotzen,  
bertan ari diren 1.600 irak-  
kasleek gure seme-alabak  
HEZTEN jarraituko  
dute! Eta gu, gurasook,  
harro egonen gara.

### Bihotzez, mila esker guztioi

"Loro" Pikabea, Xabier Zubiet  
eta Xabier Saralegiren  
familien izenean

Urtarrilaren 11an Beran  
ospatu zen mendi egu-  
nean parte hartu zenuen  
guztioi eskerrak eman  
nahi dizkizuegu; antola-  
ketan lanean ibili zarete-  
noi, lasterka edo mendi  
bueltan parte hartu du-  
zuenoi, goizeko eskala-  
dan egon zarete noi, bai-  
ta guzti hau ikustera eta  
animatzera hurbildu za-  
redek proiektuak joanez  
zuen babesa adierazi di-  
guzuen guztioi. Bihotz bi-  
hotzez milesker guztioi.

### Feriak

Juan Mari ZUGARRAMURDI

Hobe omen da berandu  
inoiz ez baino/Ea iristen  
diren lerrotxo hauek zu-  
en etxeetaraino.

Lehendabiziko eskerrik  
asko nere bisemeari/bai-  
ta ere anai zaharrenari/  
Horiek lagundu ezean  
ezin nintzen bakarrik ari/  
Iratzea ere gotti bota be-  
har baitzaio meta egin be-  
har duenari/Nahiz eta ba-  
tzuek aurka izan eta egin  
nahiko marmari/Eskerrik  
asko polita egin dugula  
esanez poza eman dida-  
tenari.

Hilabete bat euririk egin  
gabe eta guk pasatu ge-  
nituen komerik/Egun bat  
bakarra nahi ona eta ge-  
hiena izorratu euriak/Ezin  
behar bezala eduki eka-  
rri ziren gauzak nahiz bes-  
terenak edo bakoitzak  
beriak/Horrelaxe zirangu-

re herriko feriak.

Azienda dotore, polit eta  
gustagarriak guztiak/Zer-  
ri, bihor, ardi, ahuntz eta  
untxiak/Beheko pilota  
plaza ere betea barazki,  
ontto, talo, erloju eta bi-  
txiak/Margolan dotoreak  
ere bai, artista onenak  
eginxiak/Goian bazkari  
ezin hobea, gizenduko  
dira nire txixiak/Buka-  
tzeke muxu haundi bat  
Mañoli, bihotza ukittu zi-  
dan zure irrintziak.

### Zuzenketa

TTIPI-TTAPA (Erredakzioa)

Aitzineko Ttipi-Ttapa al-  
dizkariaren erreportaje-  
an (5. or.), Etxalarko Uda-  
lak 1990etik 2012rako tar-  
tean oihanaren salmen-  
tatik 1.000.772 euro atea-  
ra zituela paratu genuen.  
Baina datua ez da zuzen-  
a, 1.772.000 euroko ira-  
baziak izan baitzituen  
Etxalarko Herriko Etxe-  
ak. Barkatu eragozpenak.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57



**Prentsatik bildutakoak**



«Nik uste dut orduan oso larri ikusi nuela nire burua, ordura arte ez zitzaidan halako gauza larririk gertatu eta ikusten nuen besoa ere galtzen ahal nuela. Trantze honetatik irten nintzeanean ikusi nuen bizitzak badituela beste mila gauza eta ezin duzula erremontean bakarrik pentsatu. Beste filosofia batekin edo lasaiago joaten naiz orain frontoira».

**Xanti UTERGA**  
Doneztebeko erremontelaria  
GARA 2014.01.03



«Arraro begiratzen ninduten galtzak janzten nituelako. Baina nere amak ere, Frantzian bizitu baitzen, janzten zituen, guretako normala zen, baina Donostian, Iruñean edo Bilbon begiratzen gintuzten». «Nere familia Frantziara joan zen, aita hiltzera etorri zirelako. Frantzian bizitu naiz eta beharbada horregatik gehiago maite dut nere lurra».

**Ana Mari MARIN**  
Elizondoko margolaria  
ON 2014.01.11

**11 galdera labur**

**Nor dugu Josu Santesteban?**

Zubietako gazte bat.  
**Denbora libre duzunean zer egitea gustatzen zaizu?**

Familia eta lagunekin egotea eta ehizira joatea ere gustuko dut.

**Mozorro atera edo joareak jo, zer duzu nahiago?**

Biak gustatzen zaizkit, baina aukeran joareak jotzea gehiago gustatzen zait.

**Zenbat urterekin hasi zinen joareak jotzen?**

Hiru-lau urterekin paratu zizkidaten joareak lehenbiziko aldiz.

**Zer dute Zubietako inauteriek beste herrietakoek ez dutena?**

Honbeste joaldun nola elkartzen garen eta mozorroek plazan paratzen duten saltsa.

**Joareak ongi jotzeko sekretua zein da?**

Joareak ongi paratzea eta

pausoa ongi eramatea, ttikitatik barruan eramaten den gauza da.  
**Inauterietako astelehena edo asteartea duzu gustukoena?**

Asteartea, Zubietako eguna delako eta herritar guztiak elkartzen garelako.

**Etxeko tikiak joareak jo nahi dituela esaten badizu, erakutsiko zenioke?**

Bai, dudarik gabe.

**Besta egiteko Zubietan ez den herri bat?**

Gogoa eta giroa izanez gero, nonahi.

**1930. urtean 633 biztanle zituen Zubietak eta 2013an 316. Zer etorri zaizu burura?**

Pena da biztanleria erdira bajatu izana baina azken urte hauetan berriz goiti doala ikusten da eta horrek poza ematen dit.

**Zer du faltan eta zer soberan Zubietak?**

Eskatzen hasita frontoi bat ez zen gaizki etorriko, eta sobrantarik ez dago.



**Josu SANTESTEBAN → Zubietako gaztea**

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**okaNe**  
HARATEGIA / URDAITEGIA  
1984-1985-1986  
Tfn/Fax: 948 630 018 Karitonbarri 12 - BERA

**PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!**  
Barria erosi taldea

**zalain**  
IAITZEA RESTAURANTE  
Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
w. www.zalain.com

**MARITX**  
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak  
T. (0934) 636 617 450

**sarobe**  
gocetegi elandegia  
p. de etzegara 25 bajo 1948 63 08 99  
31700 berain(sarobe) www.sarobe.net

**txinelka**  
ttipi bartela  
**%10eko DESKONTUA**

# ESKUALDEA

GIZARTEA → URTARRILAREN 10EAN LESAKAN

## Nafarroako Sagardotegi denboraldia Linddurrenbordan ireki dute

Dolarea elkarteko sagardotegiek 200.000 litro egin dituzte

### TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 10ean, Lesakako Linddurrenborda sagardotegian egin zen Nafarroako sagardotegi denboraldiaren hasiera ekitaldia. Donato eta Patxi Larretxea anaiak izan ziren sagardo berria, Txirrita izeneko Kupelean azken hilabeteetan ondutako zukua, dastatzen lehena.

Denboraldiko lehen-dabiziko txotxa egin aurretik, Jo ala Jo taldeko Xabi Torres, Oianko Garde eta Beñat Etxabarrik kirikoketa joz eman zioten hasiera ekitaldiari.

Unai Arriagak aureskua dantzatu zuen ondoren, Patxi Larraldek txirula eta ttuntunarekin lagunduta. Larretxea anaiak sagardoa dastatu eta oniritzia eman ondotik, Linddurrenbordara hurbildutako lagunek ere txotx egiteko aukera izan zuten.

### UZTA ESKASA

Aurtengoa uzta eskaseko urtea izan dela azaldu dute baina hala ere, 200.000 litrotik goiti ekoiztea lortu dute Dolarea elkartearen osatzen duten sagardogileek. Lesakako Linddurrenbordarekin batera, Lekarozko Larraldea, Berretzeko Behetxonea, Al-dazko Martitxonea eta Lekunberriko Toki Alai sagardotegiek osatzen dute Dolarea, Nafarroako Sagardotegien Elkar-



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Jo ala Jo taldearen kirikoketa emanaldiaren eta Aureskuaren ondotik, sagardo berria dastatu zuten Patxi eta Donato Larretxea anaiak Linddurrenbordan.

tea. Lesakako Linddurrenborda sagardotegian, 25.000 litro inguru egin dituztela aipatu digu Juan Mari Lopez nagusiak, «azken urteetan bezalatsu». Bertze sagardotegietan kanpoko

sagarra ekarri behar izan badute ere, Lesakako dena bertako sagarrarekin egin dutela aipatu digu, «Lesakatik, Doneztebetik, Arantzatik eta Oiartzundik ekarria». Lehendik ere bi-

tan ireki da Nafarroako sagardotegi denboraldia Linddurrenbordan. 2000. urtean Andoni Egaña bertsolariak ireki zuen eta 2004an Sebastian Gonzalez pilotari azkaindarrak.

Zalain • BERA • 948 630 052

**ZUBIONDO**  
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika  
BERA NAFARROA

Tel: 948 630 052

**LARRALDEA**  
eta  
**LINDDURRENBORDA**

Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea  
Txotx denboraldia irekia  
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa • LEXAROZ | 948 452121 - 626 494317  
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa • LESAKA | 948 637212

**Karsuk®**

Muebles de cocina  
Moules de cuisine  
Sukaldeko altzariak

Carlos Pombar Bains

C/Sara 1 bajo local C  
31780 Bera (Na)  
T/F +34 948 625 430  
M +34 699 884 084  
info@karsuk.eu  
www.karsuk.eu



GIZARTEA → URTARRILAREN 31 BAINO LEHEN

# Herri lurretan baratzeak egokitu eta izen emateko deia egin du Udalak

Kontzesioa eta erabilera arautzeko ordenantza onartu du

## TTIPI-TTAPA

Zenbait udal partze-la herritarren eskura paratu nahi ditu Herriko Etxeak aisialdirako baratze modura erabil ditzaten. Baratzeetan norberak kontsumitzeko produktuak bakarrik landatu daitezke eta etxe-ko erabilerarako utziko dira; horrenbertez, debekatua dago bertatik ateratako produktuak saltzea. Ordenantza honen xedea zenbait herrilur erabiltzea eta horiei balioa ematea da.

Herrian erroldatutako edozein pertsonak egin ahaldu du eskaera. Erabiltzaileen eskaeren zerrenda eginen da eskaerak aurkeztutako egunaren arabera. Zerrenda horretako ordenari jarraituta gauzatu-ko da baratzeen erabileraren kontzesioa, eta lehentasuna izanen du- te langabeek, jubilatuek, pentsiodunek, edo urritasunen bat dutela egiaztatzen dutenek. Interesatuak 012ra deitu

behar dute urtarrilaren 31 baino lehen.

Jende kopurua zehazten denean udalak antolatuko du lurraren banaketa; baratzeen kokapena kanposantuen parean, Kaxerna-Eztegara eta igerilekua- ren inguruan izanen de- la aurreikusten du Uda- lak. Behin zerrenda osatzen denean bilera bat eginen da interesa- tu guztiekin, baldintzak azaltzeko, egokia ikus- ten bada ikastaroren bat antolatzeko eta komu- nean izan daitezkeen baliabideak aipatzeko.

Badira lehendik herri lurrak baratzeetako erabiltzen dituzten herritarrak, horien egoera or- denantzara egokitzeko pausuak emateko Uda- la paratuko da harreman- etan interesatuekin.

## Toti Martinez de Lezearen hitzaldia

Toti Martinez de Lezea idazle ezagunak so- lasaldia eskainiko du il- beltzaren 31n, 12etan Kultur Etxean. Toki Ona Institutuak eta Berako Kultur Batzordeak, Esta- tuko Kultura Idazkari- tzaren babesarekin an- tolatutako ekitaldirako sarrera doan izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Kirolak eta oroitzapenak bat egin zuten Mendi Egunean

Agerra Mendi taldeak eta Gure Txokoa elkarteak antolatutako Mendi eguna, il- beltzaren 11n giro ederrean ospatu zen. Eskalada tailerrarekin eman zitzaion hasiera egunari eta urteroko ohiturari segiz, taldetxoak bildu zen Santa Barbara igotzeko. Erlojuaren kontrako probak ere ohiko arrakasta izan zuen eta 54 bikotek hartu zuten parte. Eguneko unerik berxiena berriz, *Agerratik Hima- layara* dokumentalaren estreinaldia izan zen. Jendetza bildu zen Kultur Etxean Manttalet osatutako dokumentala ikusteko asmoz. Mendi taldeko momentu- rik gogoangarrienak berrikusten ditu filmak. Testigantza, bideo eta argazkien bidez, talde honen lehenengo pausoak gogora ekartzen ditu, Pirineoetara ir- teerak, Alpeetara bidaiak, Kilimanjarora joan zen lehenengo espedizioa, peru- ko Huascaraneako abentura, Gasherbrum II-an egindako gailurra eta Shisha Pangman bizitutako arrakastarik gabeko saiakerak. Oroitzapenak dantzan ja- rri eta une hunkigarriak bizi izan zituzten bertaratutakoek.

## Bera-Goizueta mendi ibilaldia

Agerra mendi talde- ak urtero antolatzen du- en Bera-Goizueta men- di ibilaldia otsailaren 2an eginen da. Urtarrilaren 29a baino lehen eman behar da izena elkarte- an edo 948 630362 te- lefonora deituz (gaez). Agerratik (7etan) eta Agi- natik oinez (8:15ean au- tobusa Agerran) edo au- tobusez (11etan) egin daiteke bidea eta Umo-

re Ona elkartearen bazka- lduko dute. Bertan or- dainduko da.

## Triskantzak

Matzada eta Agerra futbol zelaietan *arratse- ko lanak* egiten arituta- koei «eskerrak» eman

nahi dizkie Gure Txoko- ak. Matzadan ostatu- gisa erabiltzen den tx- abola haustea eta Age- rarako futbol zelai- an dagela moduan erabi- ltzen den txabola izorra- tzea izandu di- ra euren *lanak*.



## Ba al zenekien

Udalak, garapenerako laguntzarako urtero bi- deratzen du diru kopurua, iazko ekarpena *Wa- waetxea* proiektuarentzat izan da. Proiektu ho- netan Perun arrazoi desberdinengatik etxerik ez duten haur eta gazteentzat bi etxe dituzte.

**F. LANCHAS**  
Akuboladorea eta berrizatzaila  
Parket eta parket flotatzaila  
lantzak  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**JAKINE-GOKOTEKIA**  
948 630 786  
Altzale, 21 • BERA

**ANILANDOBILA, s.l.**  
BILTEGIA 948 630 102  
FAUSTINO 647 810 152  
Bidaxoa, 76 • etea 21-22  
31780 BERA

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 • BERA



# LESAKA

KULTURA → HARRIONDOA KULTUR ETXEAN

## ‘Euskararen kate hautsiak’ liburua aurkeztuko dute urtarrilaren 23an

Dabid Anaut egilearekin batera, liburuan parte hartu duten Pello Apezetxea eta Kontxi Erro izanen dira hizlari

nen ditu Pello Apezetxea (liburuan kolaborazio bat idatzi baitu) eta Kontxi Erro (liburuan elkarrizketatua izan da). Liburuan agertzen diren zenbait bortziritarren testigantzak ere emanen dira.

### Urtarril-otsaileko matrikula euskaltegian

IKAbortzirriak euskaltegiak urtarril-otsaileko matrikula zabaldu du. Euskalduntzeko maila guztiak, alfabetatze eta EGA azterketa prestatzeko ikastaroak eskainiko ditu ekainera arte. Beran eta Lesakan emanen dira ikastaroak, aste-lau orduko taldeak, goiz, arratsalde edo gauetz.

Matrikula ordaintzeko erraztasunak izanen direla ere aipatu dute euskaltegitik. Izen emateko epea otsailaren 7an akituko da.

Informazio gehiago 948 637 796 telefonoz edo [bortzirriak@ika.euskaltegiak.eu](mailto:bortzirriak@ika.euskaltegiak.eu) helbide elektronikoan.

### Euskal Herriko mus txapelketa


Euskal Herriko mus txapelketako bi kanporaketa jokatu dira herrian. Lehenbizikoa hilaren 17an jokatu zen Arranon eta bigarrena urtarrilaren 25ean, larunbat arratsaldeko 4:30ean Haizegoan.

#### Aitor AROTZENA

Pasa den urtearen bukaeran Euskal Memoria fundazioak bere azken lan monografikoa aurkeztu zuen. Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria du izenburu, eta Dabid Anautek idatzi du, garai batean Bortzirietan euskara teknikari izan zenak. Liburu horren aurkezpenean eginen dute urtarrilaren 23an, ortzegun arratsaldeko 7etan Harriondoa Kultur Etxeko Zumarra aretoan.

Liburuak euskarak jasan duen zapalkuntzaren memoria du ardatz, eta euskararen kontrako errepresioaren kronika biltzen du, hainbat datu eta ehundaka herritarren testigantza emanez. Horrez gain, euskararen kateari eusteko Euskal Herriari sorturiko mugimenduaren argazki zabalak eskaintzen du.

Lesakan eginen den aurkezpenean, Dabid Anaut egileak lagun izanen



ARGAZKIA: A. AROTZENA

### 27 urteren ondotik erreleboa frontoiko ostatuan

Begoña Tabernak 27 urte eman ditu frontoiko ostatuaren kudeaketan eta urte berriarekin erreleboa eman die Gislene Alves Martins eta Joxe Antonio Mujikari. Batzoki elkarteak oroigarria eman zion Begoñari pala txapelketako finalen ondotik. Lehen mailako finalean, Jon eta Unda bizkaitarrek 25-23 irabazi zieten Larralde eta Zumeta beteranoei eta bigarren mailakoan, Hernaniko Ramos eta Zubimendik 25-18 irabazi zieten Loidi eta Olaizolari.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

### Bihotzkada elkarteak bildu dira herriko artisauak

Bihotzkada artisau kolektiboak beraiek egindako produktuekin saski berezia osatu eta Eguberrietan zozketatu du. 362 zenbakia suertatu zen saritua eta Urtezahar Egunean eskuratu zuen Pitxurri Biurrarena Etxeberria jabeak. Jabier Fagoaga eta Marian Mendiberri, kolektiboko ordezkariak eman zioten saria. Berriki sortua da Bihotzkada kolektiboa. Hasteko, diru pixka bat lortzea izan da zozketa honen helburua eta diru horrekin, lehen pauso bezala udaberri aldera artea eta artisautza (eskultura, pintura, argazkigintza, talla, burnigintza...) elkartuko dituen azoka bat egin nahi dute, Baztan-Bidasoaldean artistikoki gaur egun gertatzen dena isladatuko lukeena "Gure artea, gure artean" lemapean.



GIZARTEA → KULTUR ETXEAN

## Muralak sortzeko tailerra abiatu da

Ortziralean '80 egunean' filma ikusgai izanen da Kultur Etxean

### Irune eta Itsaso

'Muralak sortu' tailerra hasiko da kultur etxean. Landagain eskola-ko janlekua apaintzeko erabiliko dira tailer honetan egindako muralak. Tailerra urtarrilaren 22an hasiko da (guzti-

ra 4-5 saio), 17:00etan kultur etxean.

Urtarrilaren 24an, 80 egunean pelikula izanen da ikusgai kultur etxean ortziral arratsaldeko 18:30an. Bi ekintzetan apuntatzeko euro baten truke edo kultur etxea txartelarekin egin beharko da.

### Gantxilo tailerra

Urtarrilaren 31n arratsaldeko 6:30ean hasiko da bigarren urtez gantxilo tailerra Iharri-

an. Herritar guztiak gonbidatuak daude parte hartzera.

### Bildots hirukiak

Saroitako Joxemari Olagaraien ardi batek 3 bildots egin zituen abendu bukaeran.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Ela ela eskea eta kontzentrazioa

Aspaldiko ohiturarekin segituz, urteko azken egunean, eguraldi hotzari aitzin eginez, haurrak etxeko etxe urtatzak biltzen ibili ziren. Urtezahar gauean, berriz, Tantzaz tanta egitasmoarekin bat eginez eta urtarrilaren 11n Bilbon egin behar zen manifestazioari babesa emanez, 25 lagun bildu ziren plazan.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Txokolatada Larraburuan

Urtarrilaren 6an, eguberri bestei akabera eman zion Larraburuak haurrei eskainitako txokolatadarekin. 30 haur inguru hurbildu ziren eta txokolata hartu ondotik jolasean ederki pasa zuten.



ARGAZKIA: AXUN MAIA

### Karmen Elizagoien saskiaren sariduna

Azken alean Xabier Ariztegi sariduna izan zela erran bagenuen ere, bere ama, Karmen Elizagoien zen boletoa jabea. Argazkian ikusten da Karmen Altxataren eskutik saria hartzen.

José I. Gonzalez Enguita  
Doktorea  
barriak eta bitzakak  
tel. 666 235 466

**BORTZIRI**  
**UNISION ANAIAK**  
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

intzuri  
**OPTIKA**

ttipi txartela

**%10eko**  
**DESKONTUA**



## ARANTZA

OSPAKIZUNAK → EGITARAU ZEHAZTEKO DAGO

Otsailaren 13tik 15era  
izanen dira inauteriakMozorro xuriak  
egitaraua  
lotzen ari dira

## Nerea ALTZURI

Urtea hasi bertzerik ez dugu egin...ia ia pasa da lehenengo hilabetea ere. Urtarrileko kroniketan normalean inauteen berri jakiten dugu. Aurtengoek ere data badute: otsailaren 13, 14 eta 15ean egingen dira eta ohi bezala, antolatzaileak mozzorro xuriak dira. Ohiturari jarraituz, puxka puxkako ibilerak, mozzorroak, bazkal-afariak...izanen dira inauteetako asteburuan. Egitaraua zehatz-mehatz egunak hurbildu ahala emanen dizuegu. Jakinmina duzuen horientzat behintzat, horratx agendan apuntatu beharreko neguko besta egunak!

## Erreketak

Udaletxeak, bando baten bitartez, mendian erretzeko baimen eskaerak Herriko Etxean

egiten ahal direla plazaratu du. Eskaera horiek Nafarroako Gobernura bidaliko dira baimena emateko.

Zenbait epe bete behar dira prozesuan. Izan ere martxoaren lehen baino lehen eskaera egin behar da eta ondoren, Nafarroako gobernuaren baimena lortu ondoren, apirilaren 15a baino lehen erreketak egingen dira.

## Bandera balkoian

Joan den abenduaren 17ko udaletxeko premiazko bilera berezian, Herriko Etxean bandera espainiarra paratzeko jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsioa izan zen aztergai.

Gogoratuko duzue, iaz, irailaren 19an, gobernuko ordezkariak idatzi bat bidali zuten Espainiako bandera hilabete bateko epean jartzeko errekerimendua emanez. Azaroaren 26an hartu da estatuak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa

bandera espainiarra ez jartzeagatik. Espedientea igortzeko hogeitau eguneko epea ematen da. Hori horrela, herri batzarra egin eta gaia aztertu ondoren, aho batez, Herriko Etxeko balkoian bandera jartzea erabaki zen udalbatzarrean.



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

## Errege kabalgata

Meltxor, Gaxpar, Baltaxar eta laguntzaile taldea aurtien ere herrira ailegatu dira. Herritarrek harrera egin zieten plazan. Ander Almandoz zinegotziak solas batzuk egin zituen eurengana hurbilduz. Segidan, elizako bidea hartu eta Maribel Apezetxeak gidatutako egonaldia izan zen, haurrei opariak banatuz.



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

## Elkartasun zozketa

Jende multzoa bildu zen urte zahar ilunabarrean. Herriko trikitilari gaztetxoek laguntzaz, kalejiratxo bat egin ondotik, plazan, elkartasun zozketa egin zen. Bertako produktuekin osaturiko karretila eder bat eta herriko bildotxa ziren sari. Lehenengo saria, 49 zenbakiarekin, Eneko Sarriasi egokitu zitzaion; eta bildotxa berriz, Baztan aldera joan zen.

**aterpe**  
altzuegi jolastuak  
T. 948 634 179  
ARANTZA  
www.arantza.net

**ola**  
SAGARDOTEGIA  
102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 423 130

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatu
- Sagardotegiko menua

**TXOTX GARAIAREKIA**

**IMANOL ITURRIA**  
ZURGINA

Enpresa eta partikular

T. 661 577 137  
E-posta: imaiturria@hotmail.com

Eskatu aurrekontua konpromisoerik gabe

**HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOAK**

**Fernando Orset Mauleon** arkitektura  
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007



**KIROLA** → 2,5 KILOMETROKO IBILBIDEA

## Europako Canopy zirkuitu handienetakoa izanen du Irisarrik

900 metroko luzera duen tirolina izanen du, estatuko luzeena

### TTIPI-TTAPA

Aste Santuan irekitzekotan dira Irisarri inguruan egiten ari diren Irtisarri Land kirol eremua. Mendi bizikletan ibiltzeko eta saltoak egiteko zirkuituaz gain, Europako tirolina zirkuitu handienetakoa bat eskainiko du. Izan ere, zazpi tirolina izanen ditu bata bertzearen ondotik, 2 kilometro terdiko ibilbidea osatuz. 900 metroko tirolina ere izanen du, estatuko luzeena.

Urtarileko lehen asteetan, helikopteroak eta bertze baliabideak



UTZITAKO ARGAZKIA

Helikoptero baten laguntzarekin paratu behar izan zituzten tirolinetako kableak, urtarilaren 10ean. Denera, 4.000 metro kable hedatu zituzten.

erabiliz, tirolinetarako 4.000 metro kable hedatu zituzten, baita 40 metroko saltoa eskainiko duen Stira-t penduloa jasoko duen zubi esekia ere.

Irtisarri Land kirol eremuko arduraduna den Hegoi Ado beratarrak aipatu digunez, «tirolina eta pendulo instalazioek naturaz gozatuz esperientzia eta aben-

tura ikusgarriak emanen dituzte». Horretaz gain, instalazio guztiak segurtasun neurri zorrotzenak betetzen dituela azpimarratu nahi izan du.

### GIZARTEA

Azoka ireki nahi du Bidazik Alkaiagan

### TTIPI-TTAPA

Joan den udaberri-tik honat, Bidazi elkar-tea buru-belarri dabil taldea indarberitzeko asmoarekin. Gaur egun taldearen lehen-dabiziko helburua azoka bat irekitzea da eta horretarako lokal bat prestatzen ari da, Alkaiagako poligonoan. Abenduan hasiak dira auzolan lanak (asmoa bazkideen artean egitea baita), eta helburua ahalik eta azkarren irekitzea da.

Bidazik bertze ekimen bat ere martxan jarri du: argazki eta marrazki bilketa bat. Gaia «Kontsumo arduratsu eta transformatzailea» da, eta parte hartzaileen artean bertako produktu ekologikoez osatutako saski bat zozketatuko da. Ekimen honekin, bazkideen inplikazioa sustatu, gizarteak egiten duen kontsumoari buruzko hausnarketa bilatu eta azoka apaindu nahi ditu Bidazik. Irudiak e-mail bidez bidali beharko dira [info@bidazi.org](mailto:info@bidazi.org) helbide elektronikora otsailaren 15a baino lehen. Epaimahaia Bidaziko bazkideek osatuko dute eta [www.bidazi.org](http://www.bidazi.org) web orriaren bidez hiru lan aukeratuko dituzte otsailaren 15etik 23ra bitarte. Saskiaren zozketaren irabazlearen izena otsailaren 24ko astean jakinarizako dute webgunean. Argazki edo marrazki bozkatuenak Bidaziko Azoka apaintzeko erabiliko dira.

**expert** **BORTZIRIAK**

**%20**  
DESKONTUA  
SUKALDE  
ALTZARIETAN

**KONPONKETAK**  
ere egiten ditugu

Bidasoa, 45 · 31780 Bera · 948 630377 · 948 631091 · [info@bortziriak.com](mailto:info@bortziriak.com) · [www.bortziriak.com](http://www.bortziriak.com)

# BORTZIRIAK

GIZARTEA → NAFARROAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK

## Bortziritako bizilagunen historia klinikoak partekatuko dituzte

Urtarrilaren 8an Iruñean sinatu zuten hitzarmena

### TTIPI-TTAPA

Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak lankidetzaz hitzarmen bat adostu zuten urtarrilaren 8an Iruñean, bi administrazioek Bortziritako herrietako biztanleen historia klinikoak partekatuko.

Hitzarmena Juanjo Rubio Osasunbideko zuzendariak eta Jon Etxeberría Osakidetzakoak sinatu zuten Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-departamentuetako ordezkariak izan zuten bileran. Bileraren buru izan dira departamentu horietako arduradun nagusiak, Marta Vera eta Jon Drapón.

Gertutasun geografikoa eta errepideen loturak direla-eta, Bortziritako bizilagunek osasun-arreta Osakidetzaren laguntza-sarekoak diren zerbitzuen erakun-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Giro ederra Bortziritako taldekako XV. bertso txapelketan

Bortziritako bertso eskolak hamabosgarren aldiz antolatutako taldekako lehiaketa erabaki da urteko lehen asteburuan. Lehen saioa 2013ko abenduaren 29an egin zen Lesakako Kultur Etxe estreinatuta berri eta hain zuzen, saio hartan aurrez aurre izan ziren bi hirukoteak lehiatu ziren urtarrilaren 4an Arrano elkartearen jokaturako finalean. Eneko Fernandez eta Juan Mari eta Maialen Lopez aita-alabek irabazi zieten final estuan Xabier Terreros, Iban Garro eta Josu Sanjurjori, puntu erdi bateko aldearekin. Bertso onenari ematen zaion Kotto Saria Maialen Lopezentzat izan zen, partehartzaile gazteenarentzat.

deetan jaso ohi dute. Horregatik, eta arretarik onena eskaintzeko, bi administrazioek egokitzat jo dute osasunaren alorrean lankidetzaz eta kooperazioa indartzea.

Zehazki, Osakidetzak konpromisoa hartu du aipaturako herrietako pazienteen historia klinikoak eskuratzeko

baimena emateko. Osasunbideak, aldiz, Osakidetzako profesionalei Bortziritako herrietako biztanleen historia klinikoetarako sarbide osoa ematea hitzartu du, Osakidetzaren baliabideak erabili izan diren edo erabiliko diren laguntza-kasuetan.

Hitzarmena behar

bezala betetzen dela ziurtatzeko, jarraipena egingo duen batzorde bat sortuko dela ere jasotzen du akordioak, sor daitezkeen zalantzak ebatzi eta hitzartutakoaren aplikazioa sustatuko duena. Akordioak urtebeteko balioaldia du eta automatikoki berrituko da.

### BERA

Elkarbizitza eta bakea sustatu asmoz formazio ekimena antolatu du Berako Udalak

### TTIPI-TTAPA

Gure gizartearen egoera berri baten aitzinean dago, eta bakea eta elkarbizitza sustatzea eta sendotzea lehenetsunezkoak dira. Horretarako, funtsezkoa da konpromiso partekatua hartzea, soziala zein pertsonala, baita Berako herritik ere.

Hori dela eta, Berako Udalak berradiskidetzarako elkarbizitza programa bat abian paratzea erabaki du, berriki herrian aurkeztu zutena. Programa hau bere lehen urratsak ematen ari da Baketik-en laguntzarekin. Programa honen garapenean gizartearen parte-hartzea funtsezkoa da, eta horregatik, urtarrilaren 21 eta 28, asteartearekin, 18:30etik 20:30era, Beralandetan, oinarri etikoak gure eguneroko gatazken inguruan formazio ekimen bat egitera gonbidatu ditu herritarrak Udalak.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Langile autonomoak</li> <li>☞ Nekazariak eta mendi langileak</li> <li>☞ Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>☞ Lan-Kontrabularako laguntzak</li> <li>☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>☞ Kontabilitateak</li> <li>☞ IVA eta IRPF</li> <li>☞ Errenta aitortpenak</li> <li>☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak</li> <li>☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak</li> </ul>
--	---

artekari@artekari.com

**LESAKA:** Bittirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
**BURLATA:** La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

jaione

tindategia

%10eko  
DESKONTUA

12Etik gorako gastuan





ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Eliz atarian egin zioten harrera Erregeei.

**OSPAKIZUNAK** → EGUBERRIEN ONDOTIK

## Inauterietako giro beroan sartuko gara asteburuan

Igandean eginen da karrozen desfilea

### Maider PETRIRENA

Urtarrilaren 5ean etorri zitzaizkigun Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak urtero bezala. Haurrek urduritasun eta ilusioz beteta itxaron zuten erregeen etorrera. Eta argiz apaindutako traktoreak ikustean pozaren pozez hasi ziren *Erregeak heldu dira* oihukatzen. Eliz atarian egin zieten harrera eta Belen biziduna ere bertan genuen ikusgai. Hagitz giro politoan joan zen tarte eta eskerrak eman behar zaizkie Eguberrietako ekitaldietan lagundu duten guztiei, laguntzarik gabe ezinezkoa baita ekintza hauek antolatzea.

Eguberrietako ospakizunak bukatu orduko, hemen ditugu inauteriak. Asteburu honetan ospatuko dira eta ale honekin batera datorren gehigarri berezian topatu-



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Belen biziduna, haurtxo eta guzti.

ko duzue egitarau zehatz (26. orria). Laburbilduz, ortziralean baserrietan eskean ibiliko dira gazteak, larunbatean herrian eta igandean karroza desfile ikusgarria izanen da.


### Eskulanak eta peliikula

Abenduaren 27an eskulan tailerra eta peliikula ikusteko aukera izan zuten haurrek, Guraso Elkarteak antolatuta. Arratsalde polita izan zen.



### ARG.: MAITE AIZKORBE, M PETRIRENA ETA JAIONE OTXANDORENA Urtaskak kantuan Urteberri egunean

Urte berria hasteko eta urteroko ohitura segituz, urtarrilaren 1ean urtaskak kantatzera atera ziren herriko haurrak. Hiru auzoetan banatzen dira, eskolako auzoa, errepideko auzoa eta baserriak. Joan den urtean ez bezala, aurtan denborak lagundu zuen eta hagitz ongi pasatu zuten haurrek, goxokiak, mandarinak, intxaurrak... biltzen.



ARGAZKIAK: BIDAL IBARRA

### Ulibeltzak taldekoak urte bukaera eta hasiera mendian

Abenduaren 29an Ulibeltzak Mendi Taldeak 2013 urteari bukaera emateko Oteixonera irteera antolatu zuen. Ez ziren sobera joan baina ederki egin zuten buelta. Urteari hasiera emateko berriz, urtarrilaren 5ean urteroko irteera egin zuten Mendaurrera.



# DONEZTEBE

KIROLA → ERREKAK ANTOLATUTA

## 176 bikote hasi dira Malerrekako eskuz binakako XII. txapelketan

Nagusiek otsailaren 5ean jokatuko dituzte finalerdiak eta bertze kategorietan otsailaren 9an

haztu gabe duten finalerako bidean aitzinera egin nahi dute. Senior eta elite mailako finalerdiak otsailaren 5ean jokatuko dituzte eta bertze kategorietakoak otsailaren 9an.

### Eskubaloia

Errekako eskubaloi talde seniorrak ongi hasi zuen urtea eta Beti Onak-en kontra bosgarren partidua segidan irabazi ondoren, Txapelaldun Fasean jokatuko txartela hagitik hurbil du dagoeneko.

Urtarrilaren 25an, larunbatean, partidu garrantzitsua jokatuko du Donezteben Bardenas taldearen kontra.

Bertze aldetik, Anaitasuna taldeak Errekako talde guztiak gonbidatu ditu, datorren otsailaren 1ean Asobal Mailako Anaitasuna - Can gas partida ikustera.

### TTIPI-TTAPA

Erreka elkarteak hamabigarren aldiz antolatutako eskuz binakako txapelketan 176 bikote hasi ziren urte hasierakin batera. Ttikienetik hasita, benjaminetan 16k eman zuten izena, alebinetan 24k, infantiletan 32k, kadeteetan 24k, jubenetan 32k, bigarren mailako seniorretan 32k eta elite maila nagusian 16k. Horietako batzuk kanporatuak daude dagoeneko, baina gainerakoek oraindik data ze-



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

### Caritasen aldeko elkartasun kontzertua egin zen urtarrilaren 4an

Mendi Abesbatzarekin batera, Bera eta Elizondoko abesbatzek eta musika bandek eta hainbat abeslari eta dantzarik parte hartu zuten urtarrilaren 4an elizan Caritasen alde egindako elkartasun kontzertuan. Beran abiatutako kontzertu zikloa martxoaren 15ean akituko da Elizondon.



ARGAZKIA: ERREKA ELKARTEA

### Errekako mendizaleek Mendaurren akitu zuten urtea

Urteroko ohiturari eutsiz, jende multzo polita igo zen Urtezahar egunean Doneztebetik Mendaurrera, Errekaren deialdiarekin bat eginez. Horien artean eliteko eskubaloi jokalariren bat, zortzimilakoak igotzen dituen eta azken boladan herrira aunitz etortzen den mendigoizalea, eta nola ez, doneztebar pila bat.

## APARAN, S.A.

**ERIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**



CASA OSTIZ



% 10 eko  
DESKONTUA

oinetakoetan




## ELGORRIAGA

GIZARTEA → LARUNBAT HONETAN

# Kontuen afariarekin akituko dira inauteriak

Aitzinetik mus txapelketa herrikoia jokatu da

**Mattin LARRALDE**

Eguberritako jaiak pasatu berritan inauteriak ere akitzekotan dira. Hain zuzen, larunbat

honetan, urtarrilaren 25ean, kontuen afaria eginen da, baina aitzinetik, mus txapelketa herrikoia ere jokatu da.

Inauteriei dagokierenez, urtarrilaren 17an, ortziralarekin hasi ziren. Arratsean herri itzulia eman zuten trikitalari eta panderojoleek eta ge-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Beti bezala, mozorro giro ederra izan da asteburu honetan inauterietan.

ro, Hilarionen afaria egin zuten eta ondotik giro ederra eta kriston martxa izan zen herriko ostatuan.

Larunbat goizean gosaria egin zen herriko

ostatuan, gero puxkak biltzea herrian barna eta bazkaria Hilarionen. Arratsaldeko mozorrodesfile mundiala eta gero zozketa egin zen: bi afari Hilarionen (1. sa-

ria), Elgorriagako bainu etxean bi zirkuitu (2.), bi gosari Julia gozotegian (3.), bi gosari Julia gozotegian (4.) eta lau talo edariarekin herriko ostatuan (5.).

## ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 29TIK

# Herriko Ostatuan ere inauteri giroa somatuko da egunotan

Mexikar festa eginen da larunbat gauean

**Fermin ETXEKOLONEA**

Gauean ditugu inauteriak eta ale honetako gehigarri berezian topatu duzue egitarauaren berri. Baina besta giroarekin bat eginez, Herriko Ostatuan ere zenbait ekitaldi antola-

tu dituzte. Urtarrilaren 24an, beste urteetako inauterietako irudiak agertzen dituen ikusentzunekoa erakutsiko dute, ostiral gaueko 9ak aldera. Urtarrilaren 25ean, larunbat gauerdian hasita festa mexikarra izanen da, Puro Relajo taldearekin. Igan-dean inauteriak hasiak izanen dira, baina gauerditik aitzinera Tororo DJ ariko da.



ARGAZKIA: IGOR BABAZE

### Joare besta Errege bezperan

Errege bezperan joare besta izaten da. Goizean haurrak ibiltzen dira herrian barna eta gauez nahi duen guztiak, helduak gehien bat. Argazkian ikusten den bezala, goizean neska-mutiko koadrila polita bildu zen, etorkizuna segurtatua dagoenaren seinale. Estalpeko afarian 55 lagun bildu ziren giro onean eta afalondan Zubietan barna joareak jo ondotik Aurtitzera joan ziren eta hangoekin batera Iturenera. Handik denak Zubietara hurbildu ziren goizaldean.

Beste aldetik, inauterietan sukaldeak garrantzi handia du. Azken urteetan bezala, Pa-

txiku Mitxelenak eginen du buru eta laguntzailerak Mari Joxe Loiarde eta Angelita Otxando-

rena izanen dira. Batzuk festa egiteko besteek lana egin beharko dute gogotik.



## ITUREN

OSPAKIZUNAK → JOARE SOINUAK HEMEN DIRA

Inauteriak ate  
joka ditugu

Otsailaren 1eko kontuen egunekin akituko dira Iturenen

## Arkaitz MINDEGIA

Laister gure herriko xoko, bazter eta belarrietara joare soinuak iritsiko dira, nahiz eta urtero bezala, Errege bezperan aurrerapen tiki bat izan genuen.

Urtarrilaren azkenean iristen garenean hainbeste maite ditugun besta haundiak iristen dira, inauteriak. Aste guziko besta izanen da Ituren eta Aurtizko karraketan, joare soinu, mozorroen harat eta honatak, akordeoilariaren nota eta soinuak... baina gehienbat umore eta giro ederra bizituko dira.

Ortzegunean puxkak bilduaz hasiera emanen zaie inauteriei, asteburuan segituz asteazkenara arte. Egun borobilena edo handienak astelehena eta asteartea izaten dira. Astelehenean Iturenen bilduko di-

ra eguerdi partean bertako joaldunak Aurtiz eta Zubietakoekin batera, koadrila ederra osatuz. Joare soinu eder eta bikaina entzungo da, tartean mozorro, musika eta karrozekin batera. Asteartean, berriz, Zubietan bilduko dira joaldun, mozorro, akordeoilari eta karrozak.

Nahiz eta bi egun hauetan kanpoko jende aunitz ibiltzen den, gainerako egunetan ere sekulako herri giro bikaina izaten da gure herriko bazter hauetan. Asteazkenean puskak bilduaz eta mahai inguruan goxatuz, egun pare batez atsedenaldira ematen zaie inauteriei.

## KONTUEN EGUNAK

Iturendarrek otsailaren 1ean kontuaren egunarekin bukaera emanen diote aurtengo inauteriei. Larunbat horretan egun guziko ekitaldiak izanen dituzte. Aurtizen, berriz, larunbat horretan baina gauean elkartuko dira zaharren afarian berriz ere inauterien bestaren segida

UTZITAKO ARGAZKIA

## Ehiztariak sasoiko

Herriko ehiztariak bisita eta punteria zorrotz zorrotza dute, azkenean asteburuetan ikusi den bezala. Basurde ehizan sasoiko eta bikain dabilta. Urtarrilaren bigarren asteburuan lau bat basurde hil zituzten eta argazkian ageri da horietako bat.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Kenpo kai

Aurtengo ikasturtean Herriko Etxeko ganbaran ikastaro berri bat antolatu eta burutzen ari dira. Modesto irakaslea gidari dutela hainbat gaztetxo kenpo kai ikastaroan burubelarri ari dira. Ganbaran ikasitakoa kanpoan ere erakutsi dute, Beran hain zuzen, maila eta itxura ederra emanez.

izateko. Dantza artean pasatuko dute gaua eta biharamonean berriz ere elkartuko dira, kontuak ordaindu eta bazkari batean bukatuko dituzte

ospakizunak, inauterietan gertatutakoetaz mintzatzen.

Herriko inauterietan Pulunpa eskolakoek ere beraien parte hartzea

izanen dute, ostiralean mozorro eta trikitixa soinuekin, joaldun tikiien herriko kalejira eginen dute, egun guziko egitarauaren barrenean.

**EDARIAK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com

**Amaya Picabea**  
COMPAÑIA DE ESTILISMO Y MAKEUP

#ttipi-ttapa

**%5<sup>€</sup> DESKONTUA** kosmetikan  
**%10<sup>€</sup> DESKONTUA** operietan 50€tik gorako gastuarekin. Promozioetan ez.

**TTIPI-TTAPA**  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN

**facebook**

www.facebook.com/ttapi.ttapa  
www.facebook.com/ttapi.net

**EGIN ZAITEZ GURE LAGUN**

# MALERREKA

**KIROLA** → URTARRILAREN 26AN AIZKORA LEHIAKETA

## Euskolabel sariko bi saio jokatuko dira Urrozen igande goiz-arratsaldez



Rekondo eta Erasun, Atutxa eta Mugertzaren kontra ariko dira arratsaldean

### Joseba URROTZ

Igande honetan, urtarrilak 26, jokatuko da Urrozen Urrezko mailako Euskolabel sariaren laugarren saioa. Egitaraua potoloa izanen da, goiz eta arratsaldean izanen baitira lehiaketak.

Sari hau bikoteena da, eta lehenbiziko bi bikoteak eguerdiko 12tan hasiko dira. Hauetxe hain zuzen: Migeltxo Mindegia eta Juan Rodriguez, Daniel Vicente eta Iker Vicentoren kontra. Lana, 16 enbor moztea, bortz saiotan banatuak.

Eta arratsaldeko 5:30ean berriz: Jon Rekondo eta Ander Erasun, Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertzaren kontra. Hauek 24 enbor moztuko dituzte, 6 saiotan banatuak.

### Traktoreen ITVa

Urtero bezala hasiak dira traktoreen, ziklomotorren eta nekazaritzako bertzelako tresnen azterketa teknikoak egiten Malerrekan. Otsailaren 5ean Labaien eginen da, 6an Urrozen, 7an Oizen, 10ean Saldiasen, 11n Iturenen, 12an Aurtitzen, 13an Ezkurran, 14an Eratsunen eta 17 eta 18an Zubietan.

**BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN PROIEKTUAK**

Graduko azken ikasturtea atzerrian egiteko abagunea eman didate, eta neure burua aberasteko oso baliogarria izango delakoan, ez diot aukerari uko egingo.

**Matxalen Palacio,**  
Udargo Ekintzalea eta Berrikuntza,  
4. maila.



**PREST**  
**MONDRAGON**  
**UNIBERTSITATEA**

**ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**  
**DONOSTIALDEA - OTSAILAK 1**  
Larunbata, 10:30 / Orona Fundazioa  
**ARRASATE - OTSAILAK 8**  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**  
**OÑATI - OTSAILAK 8**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia  
**BIDASOA - OTSAILAK 13**  
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia  
**BILBAO - OTSAILAK 15**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
**ESKORITATZA - OTSAILAK 8**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia  
**ARETXABALETA - OTSAILAK 8**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA -**  
Basque Culinary Center  
**DONOSTIA - OTSAILAK 13**  
Osteguna, 18:00 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI  
902 110 436  
www.mondragon.edu/prest





# DONAMARIA



ARGAZKIA: IZASKUN G.T.

## Sutea Jauregi inguruan

Urtarrilaren 9an, Jauregi inguruan eta kanposantu ondotik, sute izugarriak izan ziren, inguruko belagietan.



ARGAZKIAK: IZASKUN G.T.

Abeslari taldea, eliz aterpean eta komentuan.

GIZARTEA → URTARRILAREN 4AN

## Urteko lehen 'Malerreka kantuz' herrian egin da

Plazan, eliz aterpean eta mojen konbentuan abestu zuen taldeak

### Izaskun GOÑI TELLETXEA

Urteko lehen Malerreka kantuz Donamarian ospatu zen urtarrilaren 4an, eguerdiko 12etan abiatuta. Jende andana hurbildu zen bertara, herrikoak zein

inguruko herritakoak eta primerako giroa izan zen. Lehendabiziko, plazan abestu zituzten kantu batzuk, eta musika jartzeko, Zubietako Joxe Mari eta Olaia izan ziren laguntzaileak. Ge-

ro, Eliz aterpean, beste kanta batzuk abestu ondoren, kalejiran monjen komentura joan zen kantari taldea. Bertan beste lauzpabost abesti kantatu ondoren, monjek ere abesti ba-

tzuk kantatu zituzten. Eta bukatzeko, herriko ostatuan luntx ederra izan zen bertan parte hartu zuenarentzat.

Milla esker bertara hurbildu eta parte hartu zuten guztie!!!

### HAUR ETA GAZTETXOEK EGINAK

Ziber liburutegiko eskulanak salgai jartzen dituzte igandetan plazan

#### TTIPI-TTAPA

Ziber liburutegiko haur eta gaztetxoak, eskulan ezberdinak egiten ari dira, eta horietatik batzuk, egiten duten dendan erosteko aukera dago. Egindako eskulanak, belarritakoak, pultseak, liburuxkak...

Hurbildu zaitzete igandetan plazara, aukera paregabeak izango dituzue ziberliburutegian egindako gauzak erosteko!!



ARGAZKIAK: IZASKUN G.T.

Ziber liburutegian egindako eskulanetako batzuk.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Joxe Belarra eta Asuncion Telletxeak Urrezko Ezteiak

Duela 44 urte Doneztebeko Olabidea baserrira joan ziren bizitzera, baina jaiotako Donamarian egin ziren Mingotxekobordako Joxe Belarra Arozamena eta Olako Asuncion Telletxea Sarratea. Urtarrilaren 16an 50 urte bete zituzten ezkondu, baina ospakizuna larunbat honetan, urtarrilak 25ean egiteko asmoa dute, Malerrekan ez ezik, Irun, Ultzama eta Santurtzin barna hedatuak dituzten sei seme-alabekin eta bederatzita bilobekin (Jon, Leire, Oier, Xabier, Oihan, Irati, Nahia, Amaia eta Mikel).



# INAUTERIAK 2014


## LEITZA-SUNBILLA-ITUREN-AURTITZ-ZUBIETA

### Leher dadila besta!

Inauteri haizeak astindu ditu dagoeneko Aniz, Eratsun eta Elgorriaga. Urtarrileko azken asteburuan Leitza, Berroeta, Sunbilla, Ituren, Aurtitz eta Zubietaraino ailegatuko da bestaren ufada eta segidan Aresora. Egitarauak antolatuta, mozorroak, gurdiak eta joareak prest, besta lehertzea bertzerik ez da falta.

Joareek esnatuko dute lurrera, mozorroek zirikatuko bazterrak, eskean aterako dira batzuk eta gurdi apainen gainean bertzeak... Hamaika modu inauteriak, iñauteriak edo ihoteak ospatzeko. Izen desberdina izateaz gain, besta bizitzeko modua ere berexia baita herri bakoitzean.

Badira urtetik urtera mantentzen diren ohiturak: usadio zaharrak batzuk, berriagoak bertzeak. Hala, Ituren, Zubieta eta Aurtitz joareen erritmoan lotuko dira; txaranga, akordeoi edo txistuaren doinuaren etxez etxe eskean ibiliko dira Sunbilla eta Leitza eta karroza desfileeaz ere gozatzeko aukera izanen da. Mo-



zorroak soinean paratuko dituzte herritar eta bisitariak. Lau trapu zahar hartuta batzuk, erosi edo berria eginda bertzeek... irudimena izanen da muga bakarra.

Heldu da eromena, leher dadila besta!



ARGAZKIAK: TTUPI-TTAPA  
ETA IÑIGO TERRADILLOS

ongi pasa ihoteak!  
**JAI-ALAI**  
hostala  
Lizarraga, 3 • LEITZA  
T/foa: 948 510 735 • Faxa: 948 510 736  
www.jai-alai.es • info@jai-alai.es

**AINART**  
LEBARRIOSSA  
**ONGI PASA**  
**IXOTIAK**  
Eibaren, 67 behea  
LEITZA  
948 510 197

**ttipi-ttapa**  
www.ttipi.net

**EZKAIN** eraikuntzak S.L.  
ongi pasa inauteak !!  
Lizarraga, 3 • LEITZA  
M. 650 910 868 • 650 910 867  
T/F. 948 610 956 • 948 610 956  
ezkain1@gmail.com

**LA MASCARA**  
iñauterietako mozorroetan den-dena daukagu  
Era guztietako osagarrien salmenta  
Makillaje profesionala  
**www.lamascara.es**  
mascara@lamascara.es  
Abejeras, 6 | IRUNEA | T./F. 948 25 00 04

**PERITZA**  
**TABERNA**  
ongi pasa ihoteak  
eta festak ibiltze!  
LEITZA • 948 610 848



**DENAUTO SAGASPER**  
**Tailerra**  
 ongi pasa ihoteak!  
 Auto konponketa • Grua zerbitzua  
 Eluseder Ind. • ARESO • T 948 510 610 • F 948 510 917

**Melo Pinturak**  
 T. 609 873 178  
**LEITZA**  
 www.pinturasmelo.com  
 melopinturas@hotmail.com



**Aliprox**  
 Unibertsitate • Berrantza • Errehabilitazio • Prebentzio • Prebentzio  
 Tel: 948 510 007 948 610 657  
 Eibarren, 20-71 ongi pasa ihoteak!


**FISIOETXEA**  
 Ane Egcebal Llota  
 Fisioterapeuta  
 C.P.S. 18240/INA - 828 hitzordua zerbitzua  
 Biokortza arikatutak • Kirok eta Zirkulazio Masajak • Osteopatia  
 Endotze aurkeztu/ondorengo tratamendua  
 Etazt etxeke laguntza • Aseguratuak  
 Mutilak • Partidulariak  
 Huelte Gutziak, B.3.C. - LEITZA - Tel: 948 510 730

**IRUSO**  
 Ostalua  
 ANAKO • LEITZA  
 Nafarroa  
 T. 948 307 035  
 M. 660 913 294  
 ONGI PASA IHOTEAK!



**Lizarraga**  
 harategia  
 "GUREA, KALITATEA"  
 Eibarren 71 - ALIPROX - 948 510 007 - LEITZA

**Ariztela**  
 DEKORAZIO  
 TAILERRA  
 ONGI PASA INAUTERIAK!  
 • Etxerako arropa, maindirek, koltzak, nordikoak, mantak, sofarako fundak...  
 • KORTINAK, ehunak, barrak, mekanismoak, kortinak egiteko pieza guztiak...  
 • INAUTERITAKO TELAK ETA ELISKAL JANTZIAK  
 • SUJETA DOREAK ETA BAINLIJANTZIAK  
 neurria eskaltzen ditugu, zure firma eta neurria egokitzen direnak eta zure prentza onena  
 T. 948 61 06 11 - ariztela2010@gmail.com  
 Landa Industrialdea, Suizpi 3 LEITZA (Nafarroa)



**LEITZAKO IHOTEAK | Ilbeltzaren 25, 26, 27 eta 28a**



**EGITARAUA**

**ILBELTZAK 25, larunbata**

**14:00etan** Aurrera elkartean **bazkaria** izanen da eskean ibiliko direnentzat. **16:00 aldera** trikitilari, gaitero eta txistulariz lagundurik, egitaraua banatzen eta eskean hasiko dira mozorroak herriko etxeetan.

**ILBELTZAK 26, igandea**

**12:00** atsaureak plazatik aterako dira kalejiran Incansables txarangarekin eta gurdiak industrialdetik. Etxeko txikienek **txu-txu trenean** ibiltzeko aukera izanen dute eguerdi eta arratsaldean. **14:30 atsauretuek bazkaria** izanen dute eskolako jangelan eta **18:00** Incansables txarangak lagunduta, kalejira abiatuko da eskolatik. **19:00** Orkesta gizonaren emanaldia.

**ILBELTZAK 27, astelehena**

**09:00etan** gazteak elkartuko dira Aurrera parean Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Erreka auzoetara **eskean** joateko. Base-rietan dabilzan bitartean, herrian, **17:00 umeen kalejira** izanen da. **Ondoren** txokolatada eta goxokiak banatuko dizkiete. **Iluntzean eta gauean** Orkesta gizonaren emanaldia izanen da plazan.



ARGAZKIAK: ARTXIBOKOA ETA IÑIGO TERRADILLOS

**ILBELTZAK 28, asteartea**

**09:30ean** dute hitzordua mozorroek Erasote auzora abiatzeko **eskean**. **Goizean eta arratsaldean** puzgarriak eta jokoak izanen dira haurrentzat. **18:30 aldera** **Atsaureen kalejira** musikaz lagunduta. **Ondoren** musika izanen da plazan.

**LEIMEN S.L**  
 Era guztietako elektrizitate lanak  
 LEITZA 628 725 396 Argoitz  
 MENDILLORRI 628 725 397 david  
 Ihote zoriotsuak deno!!!

Egin zaitez  
**ttipi-ttapa**ren  
 harpidedun  
  
 (0034) 948 63 54 58



**Iñigo SAGASTIBELTZA ARREGI** | Leitzako gaztea

## «Lau trapu eta lotsak ahaztea nahikoak dira ongi pasatzeko»

Larunbatean lagun arteko afari batekin hasiko ditu Iñigok ihoteak. Noiz etxeratuko den, ordea, ezin jakin «egunak ongi argituta, karrozak irteten diren garaian oraindik etxeratzeko presarik gabe» ibili ohi baita. Astelehenean eskean aterako da eta asteartez, berak hartuko ditu baserrian eskean dabilzan lagunak. Bertsoetarako beta ere izanen du egun hauetan, «barrua bero eta besta giroan, bertsolari inprobisatuak ez baitira falta» izaten.

### Nola bizi dituzu ihoteak?

Urte guztian zehar itxurak mantentzen pasa ondoren, beste guztia atzean utzi eta lagun artean ongi pasatzeko egunak izaten dira, ileak orraztu gabe ibilita ere lasai... Adin desberdinetako jendea elkartzen gara bestan, mahaiaren bueltan eta giro ederra nagusitzen da. Larunbat gauean ateratzen naiz lehenengoz, kuadrilakoekin afaldu eta atsauretuta besta egiten dugu. Igande goizean desfilea izaten da eta hor ez dugu guk parte hartzen, nahiz eta batzuetan desfileak kalean harrapatzen gaituen, oraindik etxeratu gabe. Eta astelehen eta asteartean berriz, eskean ibiltzen gara.

### Giroa eta barrua bero eskean?

Egun politak izaten dira oso, egunez egiten den besta. Goizeko bederatzietan plazan bildu eta iluntzeko zortziak pasata hasten gara herrira gerturatzeko asmotan, baina beti luzatu ohi da. Baserriz baserri ibiltzen gara, atea irekitzen dizkigute eta jan edana eskaini. Barrua beteta bero bero eginda iristen gara herrira. Bertso, koplak, kantu zahar eta txarangaren eritmoan dantzek ere ez dute hutsik egiten.

### Atsaureak erositako edo etxean eginda?

Pelukaren bat jantzi, lau trapu zahar hartu eta kalera. Iaz Julian Iantzi atsauretu nintzen eta gona motz bat jantzi, umetako raketa bat hartu eta tenistataz atera nintzen. Aurten goa ere pentsatuta dut, neronek eta besteek ere nahiko par egingo dugula esango nuke...  
**Ihoteen ondotik zer?**

Bizikletan ibili, mendian bueltaren bat eman eta ahal dela deskantsatu, lasai egon erreperatzeko. Baina beste inauteriak ere iristen dira eta hara ere buelta egiten dugu...



UTZITAKO ARGAZKIA

Iñigo Sagastibeltza, iaz Julian Iantziaren gisara atsauretuta.

*ongi pasa ihoteak!*

## MAIMUR

Herriko Plaza  
LEITZA  
Tfnoa-Faxa:  
948 510 148

- Prentsa · opariak · testu liburuak
- Plastifikatzeak · enkuadernatzeak
- Inprenta lanak · fotokopiak

*Olaia Bazar*

LOREAN PAPERTEGIA  
JOSTALAN  
HERRIARRIAK  
ETXEN TRESARIAK  
JANTZIAK

ONGI PASA IHOTEAK!

LEITZA • Landabekoa, 3 • 948 510 437

**SAGASTI JATETXEA**

*ongi pasa ihoteak!*

Elbarren, 98 • LEITZA • ☎ 948 610 637

**OGI BERRI**  
ARTESANALAK  
KAFETEGI OKINDEGIA

948 610 974 | LEITZA

*ONGI PASA IHOTEAK!*

**TXOKO taberna**

Pintxoak Otartekoak

*ongi pasa ihoteak!*

Elbarren, 22 • LEITZA • Tel: 948 510 227

**OLIVEIRA - VICENTE**  
eraikuntzak

*ongi pasa ihoteak!*

Amazabal, 17 • LEITZA • 629 418 431 • 606 307 810

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa  
www.facebook.com/ttapi.net

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

**KIDE**  
aholkularitza

- Kontabilitzara
- Zergak
- Autonomoak
- Enpresen sorrerak
- Autoen transferentzia
- Errenta aitortpenak
- Aholkularitza juridikoa
- Nominak, kontratuak...

*ongi pasa ihoteak!*

LEITZA: Landa Ind. Suizpi 3 • T. 948 510 990 F. 948 510 429  
DONOSTIA: Urbeta, 60 - 1<sup>o</sup> Ezk • T. 943 420 348 F. 943 441 838

**MUSUNZAR**  
OSTATU-JATETXEA

facebook  
twitter

Elbarren, 14  
948 51 06 07  
31880 LEITZA

www.musunzar.com



# SUNBILLA

SUNBILLAKO INAUTERIAK | Ilbeltzaren 24, 25 eta 26a



**LIZUN GAZTANDEGIA**  
ONGI PASA INAUTERIAK!  
Sunbilla - Tel: 948 450 862



**MENDI LANAK**  
Landatzeak • Birtandatzak • Garbiketak  
Egur ateratzeak • Garraioak  
Zerrakurak  
Leku-Eder, Bustitz - 31791 SUNBILLA - altzuris@ yahoo.es  
Tel/Fax: 948 450 504 - 659 867 287 - 699 461 394  
SU EGURRA SALGAI: xehetua eta lotetan



**MARISOL** ONGI PASA INAUTEAK  
JANARIK | TRANKIA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA  
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608



**aurrera kada**  
lan bertikalak (ondamiorik gabe)  
www.aurrerakada.com  
616-413-660 Donibane kalea, 18 Sunbilla 31791 Matarra

**INAUTERIETAN**  
zure gosari eta bazkariak  
**ARIZTIGAIN**  
KANPINEAN!!  
SUNBILLA • 948 450 540  
info@campingariztigain.com  
www.campingariztigain.com




**HARATEGIA CARNICERIA**  
**Mª JESUS**  
Karrika Nagusia, 11 - SUNBILLA  
T. 948 451 530 - M. 686 279 252  
ONGI PASA INAUTERIAK  
Etxean egindako txistorrak, birak, saltxitok eta hamburgesak.  
Sunbillako kanpiloak erikozuz - Zonaldeko gaztak  
ZONALDEKO KALITATEZKO HARAGIA

Zurgin lanak orokorrean  
**Luis Ibarra**  
636 701 204  
690 388 263  
luisibarra@suprima.es  
Sabatore karrika, 28 - ARANTZA

Armarriak  
Lehoak  
Ateak  
Telatu berriak  
Parke flotantea  
Tarima  
Telatu zaharberitzeak  
ongi pasa inauteriat




**SUNBILLAKO TAXIA**  
8 plaza + txoferra  
**633 466 486**  
Ainhua  




## EGITARAUA

### ILBELTZAK 24, ortzirala

**09:00etan** gazteek **gosaria** Ariztigain kanpinea. **Ondotik** 2 taldetan banatu eta baserrietara joanen dira, Modesto eta Jose Angel akordeoilariekin. **Bazkaria** Ixtola eta Exkernekobordan. **17:00/20:30ean** herriko haurrentzako **txokolate beroa** eta **disko jaia** frontoian, Guraso Elkartek antolatuta. **21:30ean** eskean dabilzanez afaria Itturburun. **Gauean Emakumeen afaria** Ulibeltzak Elkartearen (sarrerak urtarilaren 18an salgai). Afal ondotik **sorpresa** izanen da.



### ILBELTZAK 25, larunbata

**10:00etan** Bustitz ostatuan gosalduta ondorengo gazteak **eskean** ibiliko dira Beñat akordeoilariarekin. **Ondotik** bazkaria eginen dute Fondan. **17:00/21:00etan** umeentzako **berendua** eta disko-jaia Ulibeltzak Elkartearen. **Gauean** gazteek **afaria** Elortxurin.



### ILBELTZAK 26, igandea

**11:00etan** **karrozen desfilea** opilak, gaztainak, hezur salda, tortilla eta ardoa banatuko ditu Ulibeltzak Elkarteak ikusleen artean. Desfilea bukatzerakoan **zoketa**: zerria eta bildotsa. **14:30ean** **bazkaria** Ulibeltzak Elkartearen. **Dantzaldia** Santxotenenaren eskutik.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA  
Giro bikaina izanen da aurten ere Sunbillan.



**Karmentxu ANZIZAR** | Sunbillako emakumea

## «Gorputzak eskatzen didan arte segituko dut inauterietan»

20 bat urte daramatza emakumeen afarira joaten eta karroza desfilean tortillak banatzen

Sunbildar gehienentzat bezala, bereziak dira inauteriak Karmentxu Anzizarrentzat ere. **«Inauteriak inauteriak dira. Pila bat gustatzen zaizkit»**. Halaxe onartu digu. Ez du etxean gelditzen asmorik izaten, eta erran digunez, **«gorputzak eskatzen didan arte segituko dut inauterietan ateratzen»**. Ortziraletik igandera, inauterietako hiru egunez gozatzen du, baina ortziraletako emakumeen afarira du gustu-

koena: **«afaria baino bi ordu lehenagotik koadrila bajora batean elkartzen gara. Mozorroak jauntzi, pinxoak jan eta poteatzera ateratzen gara»**. Urteroko hitzordua dute Karmentxuk eta bere lagunek, hoguei urte inguruz huts egin ez dutena. Halere, aitortu digu **«urtetik urtera guttiago garela. Joan den urtean bederatzi ginen eta aurten sei bakarrik izanen gara»**. Aurtengo afarirako mozorroa ere prest omen dute baina ez dugu jakiterik lortu, **«sekretuan utziko dugula»** erran baitugu. Dena den, musika lagun dutela, umoretsu aterako direla hori ia segurua da: **«musikarekin ateratzea gustatzen zaigu, zerbait alai. Joan den urtean ez ginen musikarekin atera eta arrunt motel egondu ginen. Saltsa gustatzen zaigu eta musika behar dugu»**.

Larunbatarekin ere ateratzen dira: **«hamabi-hamalau bikote elkartzen gara eta afaltzera joaten gara»**.

Eta igandean, berriz, tortillak banatzera. Ulibeltzak Elkarreak salda, tortilla, opila, gaztainak eta ardoa banatzen ditu musutruk jende artean,

eta hantxe izaten da Karmentxu esku bat botatzen. Hoguei bat urte izanen omen ditu karrozan tortillak banatzen, eta azaldu digunez, **«saltsa hori gustatzen zait»**.

1.400 arrautzaren tortillak eta 110-120 ogi banatzen dituzte, eta halere, aski ez, ibilbidea akitu baino lehen deus gabe gelditzen direla kontatu baitigu Karmentxuk. Gaur egun ez dute garai batean bezala trikitilari edo txarangarik izaten beraien karroza inguruan, baina beraiek nahikoak badira ongi pasatzeko: **«guk gure giroa muntatzen dugu»**. Eta halaxe izanen da aurten ere. Karmentxuk inauteriak bizi dituela erakutsi digu, eta gainera, berak aipatu digu, **«gogoa dudan bitartean ez diot adinari ere begiratuko»**.



Karmentxu Anzizar tortillak banatzen.

**ITTURBURU OSTATUA**  
*ongi pasa inauteriak!*  
Nagusia, 23 • SUNBILLA • T. 948 451 703

**larreta** ONGI PASA INAUTERIAK  
**IGELTSU PROIEKTATUA**  
SUNBILLA - BERRA  
Gorria Arretak 627.225.514 | Jagoni 637.921.299  
larretaigeltsua@gmail.com

**SASOI**  
eraikuntzak s.l.  
Leku-edor, 5 31791 SUNBILLA  
T. 948 451 596 F. 948 456 188  
info@sasoi.es

**JAVI PETIRENA** Ongi pasa inauteriak!

ELEKTROIZATzea IRIRIONTZA KLIMATUZAZIA BIOMASA BERTZA PELLET

Karmentxu Anzizar 3, Sunbilla (Na) | T. 67334447 | javi\_p@netmail.com

**JAVIER IBARRA**  
Hargin lanak - Albañileria  
Gremioen koordinazioa

699 122 815  
31791 - Sunbilla  
Nafarroa

  
**SUNBILLAKO UDALAK**  
Inauteri zoriontsuak opa dizkizue  
sunbildar eta bisitari guztioi

  
**IRURI MOTOR**

Aukerako autoak  
Turismo eta furgoneten salmenta  
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA INAUTERIAK!

T. 948 450 399 | Irurri-irun errep. zaharra | SUNBILLA



**MADERAS SANTESTEBAN**  
 Ongi pasa inauteriak!

Mendi lanak  
 (Pinak erazandak)

Bigak

Montajes obran

Telaturako egiturak  
 (en. berrak eta erazandak eta berriak)

Osagarriak

Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77  
 info@maderasantesteban.com

**Iturengo eta Zubietako Udalek**  
 Inauteri zoriontsuak opa dizkizuete herritar eta bisitari guztiei

**ERRANDONEA**  
 OSTATUA

INAUTERITAN GIRO PAREGABEA

948 450 216 • ZUBIETA



# ITUREN-A

## ITUREN, AURTITZ ETA ZUBIETAKO INAUTERIAK



### EGITARAUA

#### ILBELTZAK 27, astelehena

**Goizean** Zubietako joaldunek, mozorro eta karrozek lagunduta, **bisita** egingen diete aurtizarrei lehenik. Herriari bira eman eta salda beroa hartu ondotik Iturenera joanen dira. **Lasagako Zarandia** parean, Iturengo joaldunekin elkartu eta herrian barna buelta emanen dute. Joaldunek aperiitiboa hartzen duten bitartean, Iturengo plazan karroza bakoitzak eta **mozorroek** beren **ikusbizuna** egingen dute, joaldunek uxatu baino lehen.



bazkaldu eta arratsaldean etxex etxe ibiliko dira joare eta trikitilariekin. Ondotik afariak izanen dira elkarteetan.

#### ILBELTZAK 28, asteartea

**Goizean** Ituren eta Aurtizko joaldunek bisita bueltatuko diete zubietarrei, batzuen ustez natura ernatzeko eta uzta berri eta ugariak emateko egiten den ohiturari eutsiz.

#### OTSAILAK 1 eta 2, larunbata eta igandea

**Kontuen eguna** da Iturenen inauterietako azkena. Egun horretan ez da joaririk jotzen. Inauteriak akitu eta hurrengo larunbatean egin ohi da Iturenen, eta Aurtizen igandean. Iturenen bazkaria izanen dute Herriko Etxeko ganbaran. Bazkaldu aitzinetik herriko dantzarien saioa eta bertsolariak eta aizkora apustua izanen dira herriko plazan. Bazkaldu ondotik dantzaldia eta kontuen afaria. Aurtizen xaharren afaria egingen dute igandean.

#### ILBELTZAK 29, asteazkena

**Zubietan** egun hau izaten da inauterietako azken eguna. Eguerdian bazkaldu ondotik kontuak egiten dira. Ondotik joareak jarri eta Aurtitz eta Iturendarrei azken bisita egiten zaie ilunabarrean. **Aurtizar eta iturendarrek** asteazkenean

**BEROTZA**  
 ITURGIN

Ongi pasa inauteriak!

Errotaldea Industrialdea  
 31745 Aurtitz - Ituren (Na)  
 Tel.: 948450063 - 620886443  
 www.berotza.es  
 info@berotza.es

- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
  - FOTOVOLTAIKOA
  - TERMIKOA
  - GEOTERMIA
  - AEROTERMIA
  - BIOMASA
- PELLETA, EGURREZKO ESTUFAK eta HIORESTUFAK
- PELLETA, BIRUTA, ZERRAITSA, EGURRA, EZPALAK, BRIGETA, GAS edo GASOLIOZKO GALDARA KOMBINATUAK
- KLIMATIZAZIOA
- ITURGINTZA
- ELEKTRIZITATEA
- AUDITORIA ENERGETIKOAK
- PELLET BANATZAILEA: ZAKUTAN edo GRANELEAN
- GALDAREN RENOVE PLANAREN LAGUNTZAILEA NAFARRAKO GOBERNUAREKIN
- INSTALAZIOAK FINANTZATU, LEGALIZATU eta LAGUNTZEN TRAMITAZIOA egiten dugu

**PELLETA ETXETARA BANATZEN DUGU**  
 15 kiloko zakuak Big-Bag edo granelean



# AURTITZ-ZUBIETA

ttiipi-ttpa | 606 zk.  
2014.01.23



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

laz hartaz mozorrotua, joaldunekin, besta giroan... ederki gozatu zuen Eneritzek.

Eneritz AIOROA | Aurtizko gaztea

## «Joaldun batek adina disfrutatu nuen hartza paratuta»

Betidanik burutan zuen ideia gauzatu eta hartza paratu zuen iaz lehenengoz. «**Esperientzia hagitz polita**» izan zela dio, bere zailtasunak badituela aitortzen duen arren. «**Gogorra da pisu handia duelako jantziak, adarrek ere karga dute eta aurpegian kareta daramazu. Gainera oso osorik larruzkoa da eta horrek bero handia botatzen du**». Baina gustuko lekuan aldaparik ez eta «**joareen artean desfilatzeke aukera izateak beste guztiari garrantzia kentzen dio**» gaineratu digu. Inauterizalea da oso eta «**egun horietan herri osoak familia handi bat osatzeak**» bihurtzen ditu bere uestetan Aurtizko inauteriak berezi. Astelehen eta asteartea dira gustokoen dituen egunak, «**oilo larrutan**» paratzen zaiolako azala joaldun bat ikusten duenean. Mozorrotzeko ohitura ere badu, «**normalean azken orduan trapu batzuk jantzita**». Inauteriak eguneko besta direla dio, «**arratsa egunekoaren luzapena izaten da, goizean goizetik gosariarekin hasi, joareak, mozorroak, bazkaria... horrek du xarma**». Aurtengoak ate joka, galdera bat utzi digu airean, ez digu aurreratu mozorroa edo hartza eramanen duen soinean.

«Herri osoak familia handi bat osatzen dugu inauterietan, horrek egiten ditu berezi».



ileapaindegia  
**EIDEA**  
Estetika

Asteartea eta osteguna: 09:00 - 13:30  
Asteazkena eta ostirala: 15:00 - 19:00  
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445

**ALTxUNEA ERRETEGIA**  
ing. ma. instalat.

**IREKITA**  
ostiral eguerditik igande eguerdira,  
besta egunetan eta besta bezperatan

Kontsejo, 27 - ITUREN  
T. 948 450 410

**INDEGIA**  
ZURGINDEGIA

*Ongi pasa inauterietan!*

ATEAK - TARIMAK - LEIHOAK - TEILATUAK - PARKETAK  
ARMAIRUAK - ESKAILERAK - SUKALDEAK

T. 948 451 906 - M. 689 531 012 - AURTITZ  
carpi.mindegia@yahoo.es - www.mindegia.com



**Tresanea** LAZARRIEN ETXEA SA  
C/PAZTAN 100 48100 TRANCOS EAO

PLATER KONBINATUAK

OGITARTEKOAK

*ongi pasa inauterietan!*



Kontzeju karrika, 11 | ITUREN | 948 450 287  
info@tresanea.com | www.tresanea.com



## EZKURRA

GIZARTEA → URTARRILAREN 13AN

# Txerribodarekin hasi da urtea

256 eta 200  
kiloko bi txerri  
hil zituzten  
Barranka  
ostatuan

**Fernando ETXEBERRIA**

Aspaldiko ohiturari eutsiz, herriko zenbait familiek txerria hiltzen hasi dute urtea. Zehazki, urtarrilaren 13an, aste-lehenarekin, bi txerri hil zituzten Barranka ostatu nagusiek, bat 256 kilokoa eta bestea 200 kilokoa.

Festa goizeko 8:30 aldera hasi zen, euri fi-

naren azpian. Zerriak hil ondotik sua piztu zen, erre eta garbitzeko. Kanalean ireki eta gero, legeak agintzen duen moduan, animalia bakoitzaren zatitxo bat eraman zen Leitzako albaiteerok aztertzeko. Hamarak aldera geldialditxo bat egin zuten, emakumeek prestatutakoa dastatzeko. Izan ere, txerribodatan zerri-hiltzailearen eta la-guntzaileen lana goraitpatzen da, baina lanik gogorrena eta isilena emakumeek egin ohi dute, sukaldean odola nahastuz, odolkiak egi-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Txerria erre eta garbitzen, goizeko gosari txikia egin aurretik.

nez eta lehenbiziko puskekin gosaria prestatuz. Barrenak atera eta zutikako posturan jarri zituzten txerriak, berriz ere jangelara bildu baino lehen. Beste urteetan, arratsalde zaitu egiten zituzten txerriak

eta berriz ere afaldu eta ordu txikiak arte musedan ematen zuten gaua. Aurten ez dute afaririk egin.

### Jubilatuen jai

Otsailaren 16an Ezkurrako jubilatuak ur-

teroko jai ospatuko dute. Egurdiko 12etan meza nagusia izango dute Patxi eta Jaimeren oroimenez eta 14etan bazkaria Barranka ostatuan. Izena emateko epea otsailaren 10ean bukatuko da.

## ARKUPEAK

GIZARTEA → 9.BOLETINA KALEAN

# Urte berrian ere eskaintza zabala dago eskura

Izen-emate  
epeekin adi  
ibiltzeko abisua  
eman dute

**Fernando ETXEBERRIA**

Eskualdeko ordezkariei bilera egin ondotik, Arkupeak elkarteko 9. boletina kalean da eta dagozten sei hilabetei dagokion informazioa bitzen da bertan.

Uztaila bitartean, 22 badaia egitea aurreikus-

ten dute eta urteroko hitzordu bihurtu diren irteerei, berriak ere gehitu zaizkie. Tartean, Ordiziko feria edo Valentziako fallak ikustera joango dira. Hain zuzen, Valentziara sasoi horretan turista asko joaten direnez, lotarako lekua hartzeko arazorik ez izateko izen-emate datak aurreratu dituzte. Urtarrilaren 20, 21 eta 22an eman beharko dute izena interesatuek.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko zuzendaritza batzordea, azken bileran.

Euskal Herritik kanpora joateko aukera ere izanen da: Praga, Budapest, Viena edota Argentinara bidaiak egitekoak baitira.

Elkartearen eguna ere ospatuko dute eskualdeko herri aunitzetan eta bazkalondoan ohikoak diren mus txapelketak jokatu dira. Muslari hoberenak Hondarribian jo-

katuko den eskualdeko finalean lehiatuz.

Mendizale eta kirolarientzat ere bada aukera. Piriniotara irteera eta Santiago Bidea osatzeko falta den zatia egiteko aukera emanen zaio nahi duenari. Honen inguruko bilera otsailaren 18an antolatu dute.

Pentsioen orainak eta etorkizunak kezka so-

rrazten duela ikusita, 'Pentsioak: egiak eta gezurrak' hitzaldiak antolatu dituzte.

Bertalalde, iazko ikastaroak mantendu eta ingeleza, argazkilaritza, altzarien berritze lanen eta udaberriko loreen inguruko ikastaroak eskainiko dira. Izen emate urtarrilaren 31 baino lehen egin behar da.

LANGABEZIA → AZAROKO KOPURUA BERA

# 1.397 langabeterminekin bukatu da urtea

2012ko abenduan baino 30 gehiago eta 2011ko urte bukaeran baino 197 gehiago dira

## TTIPI-TTAPA

2013. urte bukaeran 1.397 langabetu zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak, azaroko kopuru bera. Baina azken hiru urte bukaerak ikusiz, 2012an baino 30 langabetu gehiago daude eta 2011an baino 197 gehiago eta 2010an baino 267 gehiago.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean

642 lagun daude langabezian, azaroan baino 16 gehiago. Adin tarte horretako emakumeen artean 615 langabetu daude, azaroan baino 13 guttiago. 25 urtez beheko gizasemeen artean bi lagun guttiago daude langabezian, 84 lagun, eta adin tarte horretako emakumeen artean azaroan baino langabetu guttiago dago, 56 denera.

Zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, baina abenduan hamar guttiago daude, 936tik 926 langabetura pasatuz. Industria arloan ere 4 langabetu guttiago daude, 233 denera. Eraikuntzan, aldiz, 6 langabetu gehiago daude, 151. Nekazaritzan 28 lagu-

## LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2013ko abendua

Herria	Populazioa 2013	Lanik gabe guztira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	120	5	2	3
ARANTZA	634	16	7	9
ARESO	271	10	5	5
BAZTAN	7.974	351	161	190
BEINTZA-LABAIEN	240	13	9	4
BERA	3.829	196	81	115
BERTIZARANA	614	48	26	22
DONAMARIA	437	28	16	12
DONEZTEBE	1.681	119	72	47
ELGORRIAGA	225	19	9	10
ERATSUN	159	11	8	3
ETXALAR	829	44	19	25
EZKURRA	151	8	2	6
GOIZUETA	763	43	19	24
IGANTZI	627	24	10	14
ITUREN	513	30	11	19
LEITZA	2.889	157	72	85
LESAKA	2.784	160	76	84
OIZ	144	12	4	8
SALDIAS	114	14	5	9
SUNBILLA	627	45	16	29
URDAZUBI	380	8	4	4
URROZ	181	6	1	5
ZUBIETA	316	18	11	7
ZUGARRAMURDI	220	12	4	8
<b>Denetara</b>	<b>26.722</b>	<b>1.397</b>	<b>(%46,53) 650</b>	<b>(%53,47) 757</b>

netan mantentzen da langabetu kopurua, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean 59 lagun daude langabezian, azaroan baino 8 gehiago.

## 2013 ERE URTE BELTZA

2012. urtea 1.367 lan-

gabeturekin bukatu ondok, 2013ko urtarrila benetan ilbeltza izan zen eta 133 lagun gehiago izan ziren langabezian eskualdean, 1.500eko kopurura ailegatuz lehen aldiz. Otsailean 1.536ra igo zen (+36); martxoan 1.521era jau-

tsi zen (-15); apirilean 1.471 (-50); maiatzean 1.405 (-66); ekainean 1.356 (-49); uztailen 1.331 (-25); abuztuan 1.334 (+3); irailean 1.342 (+8); urrian 1.367 (+25); azaroan 1.397 (+30) eta abenduan kopuru berdina.



**GRUPO TANATORIO TALDEA**  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L.

**24 ORDUKO TELEFONOA**  
**948581959 | 948637404**

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



## GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 4AN

# Omenaldi handia egin diote Asier Olaizolari

600 lagunek bete zuten pilotalekua Umore Onak antolatutako ekitaldian

### TTIPI-TTAPA

Omenaldi bikaina eskaini zioten Asier Olaizolari Goizuetan urtarrilaren 4an eta 600 bat lagunek lepo bete zuten pilotalekua. Hainbat ekitaldi hunkigarri antolatu zituen Umore Ona elkarteak 17 urtez pun-

ta-puntako pilotari profesionala izan denari eta hemendik aurrera ere, Garferekin jokatu duen aurrelariari gorazarre egiteko.

Umore Ona elkartearen izenean Unai Mirandak, Udalaren izenean Izaskun Bakerok eta koadrilaren izenean Iñigo Apeztekeak sariak eman zizkieten, baina horretaz gain, osabaziteba eta lehengusuek Aureskua dantzatu zioten eta Irai iloba eta Maren eta Amets seme-alabak ageri direneko erretrato bat ere eman



zion ilobak berak. Asier Olaizolari buruzko bideo bat ere proiektatu zuten. Ondoren, Unai Apeztegia aurtiztarra lagun zuela pilota partida jokatu zuen Iñaki Otxandorena oronoztarra eta Juantxo Kokaren kontra. Urtetan elkarren lagun eta arerio izan ziren kantxetan, baina lagun handiak ziren eta dira kantxetatik kanpo. Baina kantxan lagunik ez denaren erakusgarri, Kokak eta Otxandorenak irabazi zieten omen-



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Asierri egindako *pasilloa* eta dantzatutako aureskua.

duari eta Apeztegiari, 20-22.

Une berezia bizi izan zuten ondoren Asier Olai-

zolak Umore Ona elkartearen egindako afarian eta gaua luze joan omen zen.

GIZARTEA → URTARRILAREN 26AN

# Ibilaldi megalitikoak prestatu du Umore Onak

Mendi bueltaren ondotik bazkaria izanen dute elkartearen

### TTIPI-TTAPA

Umore Ona elkarteak antolatutako zortzigarren mendi buelta urtarrilaren 26an eginen da. Oraingoan, ibilbide megalitikoak egiten du-

te eta igande goizeko 9etan plazatik abiatuta, Martitxebe, Altzanburu, Añone, Errekaleku, Urgarata eta Montefrion barna igaro ondotik, berriz ere herrira bueltatuko dira. Ondoren, mendizaleentzako bazkaria izanen da Umore Ona elkartearen. Izena emateko zerrenda elkartearen dago eta 15 euro ordaindu beharko da bazkariaren truke.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

## Errege Kabalgatarekin bukatu dira Eguberrietako ospakizunak

Ohiturari eutsiz, Olentzero, urtezahar eta Eguberrietako gainerako ospakizunei bukaera emateko Erregeak etorri ziren Goizuetara ere. Herrian barna ibili ondotik, frontoian banatu zituzten muxuak eta lehen opariak. Gero, etxean gehiago ere izan zituzten neska-mutikoeak.

OSPAKIZUNAK → EGUN BAT GUTXIAGO

## Urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean ospatuko dira inauteriak

Igandea deskantsu eguna izango dela erabaki da, baina ostiral eta larunbatean nahiko ekintza prestatu dituzte

### Juana Mari SAIZAR

Otsailaren aurreneko asteburuan festa giroa izango da herrian berriro ere, izan ere urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean ospatuko dira inau-

teriak herrian. Jendea eskean ibiltzera ateratzera animatzen dute antolatzaileek eta noski baita etxeak apaintzera ere. Aurtengoan igandea deskantsu eguna izango dela erabaki dute herritarrek baina ostiralean eta larunbatean nahiko ekintza badaude herrian denentzat beraz aukeratu mozorroa eta guztiak festara!

### OSTIRALA, URTARRILAK 1

- 15:30ean Eskolatik haurrak kalejiran aterako dira.
- 16:30ean Arratsaldea egongo da hau-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

### Errege Magoek urteroko bisita egin dute

Urteroko legeari jarraituz errege magoak bisitan etorri zaizkigu. Urtarrilaren 5ean arratsaldean laurak aldera herriko umeak herrian barrena zintzarriak gogor astintzen aritu ziren erregeei bidea argi erakutsi nahian eta ondoren errege magoak eta bere laguntzaileak etxez etxe ibili ziren umeek eskatutako opariak banatzen. Hori bai, bakoitzari dagokion adinako oparia banatu zioten, urtean zehar egindako meritu eta gaixtakerien arabera. Hala ere, badirudi Aresoarrak zintzo portatu izango direla opariz beteak iritsi baitziren erregeak.

- rrentzat.
- 18:00etan Herriko eskea egingo da, herritar guztiak gonbidatuta daude parte hartzera.
- 21:00 Lagun Artekoek afaria egingo dute

- 21:30 Euskal Herriko Mus txapelketa Pake-Tokin.

### LARUNBATA, OTSAILAK 1

- 10:00etan eskea baserrietan.
- 17:00etan Karrozen

- desfilea.
- 18:00etan Musika plaza.
- 20:00etan Antzerkia.
- 21:30ean Afaria Pake-Tokin.
- 23:00etan Musika Pake-Tokin.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Merkealdia**

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak  
Tafalla, 13 · IRUÑA · 948 230 634



## LEITZA

POLITIKA → BANDERAREN AUZIA

# Espainiar bandera jartzera behartzen duen sententzia jaso du Udalak

Udalak herriaren subiranotasuna defendatzen segiko duela adierazi du

JM BARRIOLA

2012ko abuztuaren 16an hasi zen Leitza Espainiako Banderaren auzia, hain zuzen, Espainiako Gobernuak Udalarari Espainiako ikurra udaletxean jarri beharra zuela jakinarazi zionean. Udalak, «Leitzarren gehiengo zabalaren sentimentuen aurkako erabakia» zela argudiatuta, eskaera ez du bete. Horren ondorioz prozesu judizialean sartu zen afera eta dagoeneko errekurtsio aukera guztiak agortu dira. Auzia hasi eta hamasei hilabetera, Leitza udalaren bandera espainarra jartzea inposatzen eta behartzen duen sententzi irmoa iritsi da. Honen gaineko bandoa kaleratu du udalak eta bertan azaltzen denez, bandera udaletxean jarriko ez balitz alkatearen aurkako prozedura penalak hasiko lirake. Udalak inposaketa horren kontra egin du deialdia, «gure herriaren subiranotasuna defendatzen eta bide horretan lanean jarraituko dutela» adieraziz eta «leitza guztiak gure herriaren, Euskal Herriaren, nortasuna adierazten eta defendatzen segitzera animatu» ditu.



ARGAZKIA: ARANTZA IPARRAGIRRE

## EHko mendi erronkaren laguntzaileek ibilbidea egin dute

2013ko ekainaren 1ean ospatu zen lehenengoz Euskal Herriko Mendi Erronka eta laisterketa gure herritik abiatu eta bertan bukatu zen. 500 lasterkariren parte hartzeaz gain, herritar pila batek eman zuen laguntza behar beharrezkoa izan zen. Antolakuntza lan horietan aritu zirenak elkartu eta abenduan elkartu eta mendi erronkako ibilbidea egin dute, 65 kilometroko bidea alegia. Egun bakarrerako gehiegixko eta lau etapatan egin dute bide hori, abenduko lau asteburutan. Azkeneko abenduaren 28an eta mendi bueltaz gain, bazkaria eta argazki emanaldia antolatu zituzten, egindako irteera guztietan ateratako argazkiak elkarrekin ikusiz. Guztira 60 herritarrek parte hartu zuten eta jakinarazi dutenez, argazki horiek berak, ikusgai jarriko dira Mendibil mendi taldearen blogean. Horretaz gain, aurtengo EHME antolatzen ere hasiak dira dagoeneko. Maiatzaren 31an egitea aurre ikusten da lasterketa, jadanik izen emateko epea zabalik dago eta dirudienez, 400 bat pertsonak izena eman dute dagoeneko.

## 2014KO AURREKONTUAK AHO BATEZ ONARTUAK

Abenduaren 27an egin zen batzarrean Udalak 2014ko aurrekontuak aho batez onartu zituen, talde guztien aldeko bozkekin. Aurtent, 2.348.655 euroko aurrekontua izanen da eta zatirik handiena ohi-ko gastuak ordaintzeko eragile sozial eta zerbitzu publiko ezberdinen beharrei aurre egiteko bideratuko da dirua. Udalak orain arteko zerbitzuak eta laguntzak

mantentzen segitzeko apustua egin du. Hala, 2013 urtean hartutako konpromezu ezberdinei eustea erabaki du, herri mailako eragileekin nahiz Euskal Herri mailako garapenerako eragileekin lanean segiz. Nafarroako Gobernuak azpiegiturarako plan berriak ez dagoenez, inbertsioetarako ez dela diru askorik gelditzen azaldu dute. Aurreikusituen diren inbertsio nagusiak hauek dira: Mendi eta larreetan 62.000 euro; UE-50 urbaniza-

zioan 52.000 euro eta Ibero inguruak lantzeko 19.000 euro. Horretaz gain Udalak, PPK onartutako Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta irauarazteko Lege Egitasmoaren edukia aho batez errefuxatu zuen, Bildu, UPN eta DNEren bozkekin. Aldi berean Nafarroako Tokiko Entitateen berantolaketa lantzeko osatu den ponentzian parte hartzeko bideak ezar daitezela eskatu zuten, finantziazio iturriak argituz.

## FLASH

## EH mus txapelketako finalistak

Abenduan eta ilbeltzaren hasieran jokatu ziren Euskal Herriko mus txapelketako herriko kanporaketak Torrea, Peritza eta Atekabeltzen. Ilbeltzaren 4an burutu zen finala Torrean eta sailkatutako lehenengo hiru bikoteek herrialdeko kanporaketarako txartela eskuratu dute. Iruñeko Arrano Elkartearen otsailaren 15ean jokatu den partidaren Egoi Bengoetxea eta Galindo, Josetxo Zabaleta eta Asun Betelu eta Koldo Leitza eta Gotzon Aramendia izanen dira. Final handia Heletan jokatu da martxoaren 8an.

## Plazaolaren 100. urteurrena

Duela 100 urte, ilbeltzaren 19an egin zen Plazaola trenaren inaugurazio ofiziala. Urteurrena ospatu eta Plazaola partzuergo turistikoak 20 urte bete dituela ospatzeko, bilkura berezia egin zen Lekunberriko geltokian. 1953. urtera arte Iruñea eta Donostia lotu zituen bidea, egun, natur bide ederra bilakatu da. Plazaolaturismo partzuergoa, berrindartze prozesu batean murgildurik dago: besteak beste, webgune berria lantzen ari dira eta urteurrena aprobetxatuz urtean zehar ekimen bereziak eraberrituko dituzte.

GIZARTEA → 2013. URTEKO KONTUAK

# Elizondoko Herriko Etxeak 27.545 euroko irabaziekin akitu du urtea

Ohitura betez, Errege Egunean eman zuten alkate eta kargodunek kontuen berri

## TTIPI-TTAPA

Elizondoko herriak 27.545 euroko irabaziekin kitatu zuen 2013. urtea, Errege Eguneko batzarrean Mikel Sobrino alkateak eta Xabier Torres eta Luis Mari Lournagarai kargodu-

nek emandako kontuen arabera. Lehendik 11.506,57 euro zituela kontuan hartuz, Elizondoko herriaren saldoa 39.051,96 eurokoa da.

lazko diru sarrerak 148.857,13 eurokoak izan ziren bitartean, gastuak 121.311,74 eurokoak izan ziren.

Diru-sarrerarik handiena, ohikoa denez, herritarren aportazioa izan zen (35.684,88 euro), Santiago bestetan bildutakoa (25.903 euro) eta udazkeneko azi-



UTZITAKO ARGAZKIA

## BKTko Eguberrietako saskiak badu jabea

BKT eskubaloi taldeak Eguberrietan zozketatutako saskia Elizondoko Maria Pilar Goñirentzat izan da. Eskubaloi taldeko bi jokalarik gaztetxok eman zioten.

enda ferian postuak jarzteagatik kobratzen den tasa (24.232,40 euro). Ohikoa ez dena, Ermitegi inguruan oihanberritze lanak egiteko Europatik jasotako 27.106,21 euroko dirulaguntza izan zen. Balleko Etxeak ere 13.377,26 euro eman dizkio Elizondoko herriari.

Gasturik handiena Santiago besten anto-

laketa izan zen. 57.825,68 euro erabili ziren bestetan, 2012an baino 4.000 euro gutiago. Auzolanean egin ziren Ermitegiko oihanberritzerako eta bertze azpiegitura lanetarako 7.941,96 euro erabili ziren. Aseguruetan 5.059,60 euro gastatu ziren, udazkeneko ferietan 4.783,35 euro, Orakunde besta anto-

latzen 4.564,96 euro, El Pilarreko frontoia eta instalazioen alokairuan 3.540 euro eta Braulio Iriarte karrikako espaloiak egiten 2.186,50 euro. Bertze kopuru tikiagoak musika banda, Baztandarren Biltzarra edo Txaruta pilota eskolaren dirulaguntzetan joan ziren, baita Sahararako neska-mutikoen udako egonaldian ere.

GIZARTEA → URTARRILAREN 13AN

# Foruzaingoak polizi-etxe berria ireki du Elizondon

Bilduko ordezkariak ez zen izan inaugurazioan

## TTIPI-TTAPA

Elizondoko polizia-etxe berriaren irekierak ekitaldi ofiziala egin zen urtarrilaren 13an, Yolanda Barcina Nafarroako Gobernuako presidentea buru zela. Bertan, foruzainek eragin-eremua

osatzten duten 27 udalerri eta bertan bizi diren 26.000 herritarrei emango diete arreta.

Baztango Udalak utzitako 4.582,87 metro koadroko partzela batean egin dute eraikina, Erabeta eta Menditurri karriken artean. 2007tik Elizondoko Santiago karrikako lokal batean Foruzaingoak zituen bulegoak ordeztuko ditu. Obra I.C. Construcción



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Gobernuak, inguruko udaletako eta polizietako ordezkariak inaugurazioan.

enpresari esleitu zitzaion, eta 1.130.270 euroko kostua izan du.

## BILDUK EZ ZUEN PARTE HARTU

Bilduk, ordea, ekitaldian parte ez hartzea erabaki zuen. Prentsa-ara bidalitako oharrean adierazi zuenez, «2007ko otsailaren 28an

Elizondoko komisaria inauguratu zen. Errepresore taldeak ekitaldian protesta baketsua egiteko asmoa zuen gazte koadrila kolpatu, identifikatu eta isundu zuten. Gazteen asmoa UPNren polizia politiko izaera salatzea bertzerik ez zen». Bilduren ustez, «lehenbiziko mo-

mentutik erakutsi zuten euren benetako jarrera zein izanen zen eta berdinean segitzen du». Komisariaren finantzaketaz, lehengoan Nafarroako Gobernuak 165.386 euro inbertitu zituela ohar-tarazi du Bilduk eta honetan, «krisi garaian, lizitazio kostua 909.500 eurokoa izan da».



## BAZTAN

GIZARTEA → UDALAK MATERIALA PARATU ETA JABEEK BEHAR ZEN LUR ZATIA UTZI DUTE

# Ikastolarako bide segurua auzolanean egin dute Elizondon

200 metro inguruko bidexka egin dute Mendinuetan

## TTIPI-TTAPA

Baztan ikastolara gan-etorria egiteko bide seguruagoa eta babestuagoa dute orai ikasle, guraso eta, oro-korrean, oinezko guziek. 200 metro inguruko bidexka prestatu dute auzolanean Mendinuetan karrikan. Orain arte errepide bazterretik egin behar zituzten harat-honata, ibilgailuetatik hurbil. Auzolanaren ondorioz, harrizko hesiaren bertze aldean lur jabeek utzitako lur zatian bi metro zabalerako bidea dute. Ikastolara ez ezik, Benito Menni klinikara, Merkatzuzelai urbanizazioa eta Elizondoko bertze txokoetara gaten ahal da bide horretatik. Erran bezala, jabeek lur puxka utzi dute Elizondoko herriak, Baztango Udalaren eta Baztan Ikastola Guraso



UTZITAKO ARGAZKIA

## Laxoa Elkarteko mila euroak Elizondora

Joan den abenduaren 21ean Paxaka Txapelketako finala jokatu ondoren Laxoa Elkartek 1.000 euroko zozketa egin zuen Iruritako Aranabia pilotalekuan. Sariduna Mikel Iparragirre elizondarra suertatu zen, bera baitzen 0548 zenbakiaren jabea. Boleto sariduna Joseba Urtasun iruritarrari erosi zion eta saria Laxoa Elkarteko lehendakariak, Tiburzio Arraztoak eman zion Mikel Iparragirrerri Iruritako pilotalekuan.

Elkartearen laguntzarekin bultzatutako egitas-morako. Udalak mate-

riala jarri zuen eta guraso eta herritarrek, lana.

## Komunikazio eta heziketaren arteko lotura

Zer lotura dago komunikazio modu eta heziketa moduaren artean? Galdera horri erantzuten saiatuko da Nahia psikoterapia zentruko aditua urtarrilaren 23an, ortzegun arratsaldeko 16:30etik 18:00etara Arraiozko eskolan eskainiko duen ikastaroan. Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatuko dute ekitaldia.

## Junta Generalaren historiaz liburua argitaratu du Pedro Mari Esartek

Historia de la Junta General del Valle de Baztan. Horixe da Pedro Mari Esarte Muniain historialari elizondarrak argitaratu berri duen liburuaren izenburua. 500 ale argitaratu ditu eta izan ditzakeen irabaziak Elizondoko herriarentzat izanen omen direla jakinarazi du Baztango historialariak.

## FLASH

### Xaloa Telebista bersintonizatu

Xaloa Telebista LTDko 38. Kanalean bersintonizatu behar da. Al-daketa honek lizentzia jaso izanari erantzuten dio. Litekeena da Xaloa Telebista ikus zitekeen etxeetan seinalea galdu izana, beraz, ikusten segitu nahi izanez gero, etxe bakoitzak LTD kanalak bersintonizatu beharko ditu. Telebista-hargailuan "automatikoki sintonizatu" aukera mar txan jarriz egin daiteke bersintonizazioa edo manualki sintonizatu.

### UEMAko kide

Baztan, UEMAko kide izenburupean, arnasmuneen edo herri euskaldunen gaineko tailerrak eginen dira ilbeltzaren 28 eta 30ean Arizkunenean. Udaleko Euskara Batzordeak eta Euskalgintzak antolatutako bi saioak 19:00etan hasiko dira.

### Mugaldekoak kontzertuan

Udaleko Kultur Batzordearen eskutik Mugaldekoak taldeak kontzertua eskainiko du urtarrilaren 26an, igande arratsaldeko 7etatik aitzinera Arizkunenean.

**ANZABAL INMOBILIARIA**



- Zuzirik Auzokurak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Norma eta Auzokur Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baseri, borda, pisu, etab... salmenta eta alkatariak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

**Pierresenea**  
OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043  
ORONÓZ · MUGAIRI

**Mikel Yanci**  
Fisioterapia  
Osteopatia

Santiago, 12 · Bermeleku · ELIZONDO 699 267 981

GIZARTEA → NAFARROAKO IPARRALDEKO LEHENA

# Autokarabanendako aparkalekua eta zerbitzu gunea egingen da Lekarozen

Hemezortzi autokarabana eta bederatzi camperrendako tokia eskainiko du

## TTIPI-TTAPA

2013ko azken Oso-ko Bilkuran, Baztango Udaltzaren onartu zuten Lekarozko Kanpusean autokarabanen aparkaleku eta zerbitzugunea instalatzea ahalbidetuko duen hirigintza-hitzarmena. Hirigintza-hitzarmena Lekarozko Kanpusaren ardura duen CEINekin sinatuko da, eta horren arabera, Baztango Udalak bere kargu hartuko du Kanpuseko atal batean au-

tokarabanen aparkalekua eta zerbitzugunea egokitzea eta kudeatzea.

Zehazkiago, aparkaleku eta zerbitzugunea Lekarozko kirol eremuaren ondoan kokatuko da, eta 18 autokarabana eta 9 camperrendako tokia eskainiko du, ur gris eta beltzen hustuketa zein ura hartzeko instalazioak izanen direlarik.

Hautatutako tokia Baztango bihotzean kokatzen da, Lekarozko herrigunetik kilometro batera, eta Elizondoko zein Irurritako herrigunetatik kilometro terdira, azken bi herrietaratu Done Jakue bidetik joaten delarik. Izan ere, gunea Baztango Done Jakue bidearen ondo-ondoan

dago, eta etorkizun batean, Bidasoako Bide Berdearen azken tartearen aldean geratuko da. Areago, Lekarozko autokarabanen aparkalekutik 4 euskal hiriburu bisitatzeko parada dago 60 kilometroko erradio batean (Donostia, Iruñea, Baiona eta Donibane Garazi).

Nafarroako iparraldeko lehen udal autokarabanendako aparkaleku eta zerbitzugunea izanen den honek gero eta garrantzi handiago hartzen ari den turismo segmento bati erantzutea du xede. Izan ere, gero eta autokarabanista gehiago pasatzen dira Baztanetik, batzuk Europako iparraldetik penintsula iberikoaren hegoalderako



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Gartzaingo lixutegia moldatu dute

Gartzaingo lixutegia moldatu dute. Lana, Baztango Udaleko Enplegu Babestuko langileak eta herriko jendearen artean egin da. Elkalanean egindako proiektua izan da. Argazkietan ageri da aldaketa izugarria.

bidean, bertze batzuk bailara eta eskualdea bisitatzen. Hori dela eta, turista horiei honelako azpiegitura eskainita, urteko edozein sasoi tan bailara bisitatzera animatu nahi ditu Baztango Turismo eta Merkataritza Zinegotziak.

Behin Udalak eta CEINek hirigintza-hitzarmena sinatuta, aparkaleku eta zerbitzugunearen egokitzapen lanei ekinen zaie. Helburua autokarabanendako gunea Aste Saindua baino lehen inauguratu ahal izatea da.

## OTSAIL HASIERAKO EKITALDIAK

Baztandarren Biltzarraren 50. urtebetetze besta otsailaren 1ean

## TTIPI-TTAPA

Otsaileko lehen asteburua kirol eta kultur ekitaldiz ongi hornitua dator. Otsailaren 1ean, larunbatarekin, futbito txapelketako finala jokatu da kiroldegian eta Baztandarren Biltzarraren 50. urtebetetze besta egingen da Antxitonea trinketean.

Otsailaren 2an, igandean, antzerkiaren txanda izanen da Irurritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta. Aitziber Garmendia eta Iker Gartzia aktoreek *Ondoko tipoa* antzezlana eskainiko dute.

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperako kalejira antolatu du Baztandarren Biltzarrak Elizondon, 19:00etan hasita. Minbiziaren inguruko laguntza taldeak, berriz, bazkari osasuntsuak nola prestatu saio praktikoa egingen du otsailaren 5ean, San Fco Javier ikastetxeko sukaldean.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Sobrinoren margolana zozketatu dute Xauliko bazkideen artean

Azken 12 urteotan bezala funtzionatu ahal izateko, Xauli adimen desgaitasunerako aisialdi klubak zenbait kanpaina martxan jarri ditu dirua eta arazoaren ikuspena lortzeko. Jendearen partaidetza zuzena ere eskatu da Xauliren bazkide/lagun figura sortuz. Laguntza hau eskertzeko, Tomás Sobrinok emandako margo bat zozketatu da Xauliren bazkideen artean. Zozketa urtarilaren 5ean egin zen eta saritutako bazkidea 10 zenbakiduna izan zen, Idoia. Urtarilaren 11n, Tomás Sobrino berak margoa eman zion saritua izan zen bazkideari.



# ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → IKASTAROA ABENDUAN

## Dinamismo pertsonaleko jardunaldietan parte hartu dute bederatzi lagunek

Mirentxu Goienetxe amaiurtarrak zuzenduta

### Margari eta Koro

Abenduko lau egunez, Dinamismo pertsonaleko jardunaldi batzutan parte hartze-ko aukera izan zuten Zugarramurdiko eta Urda- zubiko 9 lagunek.

Jardunaldia Mirentxu Goienetxe amaiurtarrak zuzendu zuen, eta parte harzaileek zioten interesgarria eta aberasgarria izan dela: haien artean solas eginez eta dinamika eta joko diferenteetan arituz, arras baliagarriak suertatu omen zaizkie egun horiek.

Bi herrietako udalek antolatua zuten Nafarroako Gobernu-ko

dirulaguntzarekin, eta arrakasta ikusita, aurtentz berriz antolatzea eskatu behar omen dute.

### Barnekiak zikloa

Aintzineko Ttipi-Ttapan aipatu bezala, hila- bete huntan "Barnekiak" zikloa hasiko da:

Urtarrilaren 25ean Joseba Tapiaren azken diskoaren aurkezpena egingen da.

Otsailaren 8an Txori Mugariak emanaldia eskainiko dute (Maialen Lujanbiok eta Xabier Erkizikiak).

Otsailaren 22an: Bolet Còsmic, Kataluniatik ekarritako emanki- zun berezi bat izanen da, trikitixa, musika eta irudiak uztartzen ditue- na. Denak ilunabarreko 7etan Museoko Antzo- kian izanen dira eta sa- rrera 5 euro ordaindu- ko da.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO  
Jardunaldietan parte hartu zuten batzuk, Mirentxu Goienetxe zuzendariarekin.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

### Neguko pilota txapelketan Noel eta Klemente irabazle

Neguko pilota txapelketako txapelkunak Noel eta Klemente izan ziren, 40-29 irabazi baitzieten finalean Frantzisko eta Kepari. Ondotik "Arleun" elkartean ajoarriero afaria izan zuten.



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

### Nafarroako bertso eskoletako gaztetxoak Graxianako negulekuan

Nafarroako bertso eskoletako 9 eta 14 urte arteko hogeita hamar gaztetxok Graxiana aterpean eman zuten gan den urteko azken asteburua. Iruñeko Alde Zaharra, Errotxapea, Sakana, Igantzi, Lesaka eta Berako neska-mutikoez Soriginen Museoa eta lezeak bixitatu zituzten, tribiala marraztu, beraiek egindako bapateko saioa, afalondoan Saioa Alkaiza eta Oskar Estangarekin bertso-saioa, tribialean jokatu, frontoian kirol pixko bat egin eta etxera joan ziren.

**JATETKEA-ERBETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TERRA-DENDA**

Egunero irekia  
 09:00etatik  
 02:30era

Dantxarinetatik  
 2 km.tara

PLATER KONBINATUAK - OGITARTEKOAK  
 MENUAK INKANGUZ - PINTXOAK  
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039  
 montxoblanco@gmail.com

GIZARTEA → OSPAKIZUNEZ OSPAKIZUN

## Eguberri eta urtats ospakizunen ondotik ihauteriak prestatzen ari dira herrian

Otsailaren 14 eta 15ean ospatuko da mozorro besta

**Franck DOLOSOR**

Eguberri eta urtats gauaren inguruan ospatu diren besten ondotik, ihauteriak eginen dira orain laster, otsailaren 14 eta 15ean hain xuxen. Larunbat arratsaldean desfilea egingen da karrika nagusiaren barna eta gauean musika kontzertua izanen da Oxtikenean. Bertalalde, Zirikolatzen herriko euskal dantza taldea ere buru belarri ari da besta hau prestatzen eta gazteak etxez etxe ibiliko dira berriz aurten. Kantu, dantza eta umore ona, ez da deus eskas izanen. Hitzorduak finkatu dituzte otsailaren 8, 9 eta 15ean etxez etxe ibiltzeko xingar eta arraultze eskatzen.

### Errebirako Añak 90 urte

Errebirako Añak alaitasun eta umore ezin

hobean ospatu du berri bere 90garren urtemuga. Horren kariatat herriko ostatu batean bildu da Añak eta Mattin Haltza zenak sortu duten familia elgarrekin bazkaltzeko eta "Zorionak zuri!" kantatzeko. Besta hortan izan da lore, opari eta zonbat gauza bitxi oroitarazteko parada: 90 urtez Añak 32.873 egun, 1.080 hilabete eta 4.697 igande ikusi dituela!

Bertalalde, ondoko lerroetan ageri dira urtebetetzearen kari kantatuak izan zaizkion pertsuak. Kopla horiek gogoratzen dute Aña Arantzan sortu zela, Nafarroan, 1924ko urtarrilaren 11an eta hiru urtetan Senpererat joan zela bizitzera familiarekin. Añaren gurasoak eta anai-arrebak: Lorenzo, Miguel, Koxe Mari, Frantxixku, Concepcion eta gazteena Aña bera Leonen Bordan lehenik eta gero Kamietan plantatu ziren. Gauza harri-garria haurzain zelarik Miarrizten bonbardaketaren lekuko xuxena izan



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Errebirako etxeko andere zaharra 90 urte ospatzen ari laugarren belaunaldia inguruan duela.

### Bota bertsoa

Airea: Iduzki denean

## Amatxi Añak 90 urte

Aspaldikoa da zure sortzea\_Arantzan  
Nafarro Lapurdi, hobetze esperantzan  
Senperen plantatu, biziki laketu, kantuz eta dantzan  
Beldurrik ez lanean, ta bizi osoan, azkarki laborantzan

Mundu bihurria, bonba, nigar, uholde  
Jainkoak lagundurik bazoaz bidez bide  
Denen laguntzaile, maitasun emaile, pastiza egile  
Sabel goxatzaile, dudarikan gabe, hoberena zu zare!

Urtemuga besta ez zaukula itsusi  
Menderat bidean, ederra bezain bitxi  
Zerutik begira, goraintzi ta irri ari da Aitatxi  
Goresmenak Ama, bihotzez eskerrak, maite zaitu(g)u Amatxi!

zen 1944ko martxoaren 27an. Ondoko hazilaren 22an Mattin Haltza zenarekin ezkondu zen eta elgarrekin familia sortu zuten. Laborantzak eta fedea gidatu dituzte biten urratsak. 90 urtetan erretiroaz goxatzen da orain Aña inguruan familia duelarik.

### Ba al zenekien

Kalakan musika taldeak (tartean Jamixel Bereau senperrarra zela) ireki zuela Astigarragako sagardotegi denboraldia urtarrilaren 15ean Alorrenea sagardotegian. Madonna euskaraz abesten jarri duen *Sagarra jo!* ezaguna kantatuz ireki zuten sasoia. Kalakan taldeko kideen erranetan, «sagarnoa egiteko zikloan, berez bada erritmoa eta musika». Sagarrondoa ere landatu zuten Sagardoetxean.





# SARA

KIROLA → URTARRILAREN 26AN

## Orientazio lehiaketa egingen da igandean Larrungo mazeletan

Izena emateak  
Turismo  
Bulegoan  
eginen dira

**Joana GERENDIAIN**

Urtarrilaren 26an orientazio lehiaketa bat antolatua da Larrungo mazeletan. Izena emateak Sarako turismo bulegoan egingen dira. Mendian hedatutako

seinaleak topatu beharko dituzte partehartzaileek, karta baten laguntzarekin.

### Gaualdia

Otsailaren 8an, larunbata gauarekin, Sarako urtxintxak elkarteak gaualdi bat antolatzen du gaztetxean. Gaueko 8etatik goiti pintxoak jaten ahalko dira, baso batzuk edan eta dantzatu.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Karta baten laguntzaz, mendian ezarritako baliza edo seinaleak topatu beharko dituzte.

### Herriko pilotariak txapeldun

Joan den abenduaren 22 an, Iñaki Jauregui eta Xabier Jaunenak Euskal Herriko txapelketa irabazi dute, 3. Mailan. Milafrankako trinketeen jostatu dira Ahierrako ekiparen kontra, eta partida zaila baten garaile atera dira: 40-39.

Bertzalde, minime-

tan, Aritz Lecuona eta Unai Iribarren Arburua pareak Frantziako txapelketa irabazi dute Urruñako ekiparen kontra: 40-13.

Urtarrilaren 12an, Baionako Moderne trinketeen Jon Laduche Denis Endara pareak national B mailan Frantziako txapeldun izan dira. Baitorriko Arambel Peio eta Camino Gratien irabazi dituzte 40-33.

### Kirol emaitzak

Eskubaloian, 11 urte azpikoek galdu dute 22-14 Baionaren kontra, 13 urte azpikoek galdu dute 18-8 Hendaiaaren kontra, 15 urte azpikoek irabazi dute 19-13 Urruñaren kontra eta seniorrek galdu dute 17-12 Atarratzeren kontra. Basurdeak Pamarezen ari ziren eta bi ekipek galdu dute: 28-11 eta 31-5.

## BAZTAN-BIDASOA

GIZARTEA → 4.992 ZENBAKIA DA SARIDUNA

## Hiri Hondakinen Mankomunitateetako urtarrileko zozketa egin da

Aurtengo egutegian ilgora eta ilbehera alderantziz paratuak daude

**TTIPI-TTAPA**

Baztango Udalak, Bortzirietako Hiri Hon-

dakinen Mankomunitateak eta Malerrekako Mankomunitateak etxez-etxe banatutako egutegiek duten zenbakiarekin, urtarrileko zozketa egin da eta hauxe da zenbaki sariduna: 4.992.

Saria, zonaldeko produktuekin osatutako lotea izanen da. Aipatu, bertzalde, joan den urteko abenduan ere ez

zela zenbaki sariduna agertu. Urte hondarrean bukatu zen epea, eta beraz, orain ezin da saria eskatu.

Urtarrileko zozketaren saridunak hilabete bukaera arteko epea izanen du saria eskuratzeko. Horretarako, urtarrilaren 31 baino lehen Bortzirietako Mankomunitatera deitu beharko du: 948 635254.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mankomunitateek etxez etxe banatu dute egutegia.

### AKATSA EGUTEGIAN

Bertze aldetik, aipatu behar da 2014ko egutegian ilgora eta ilbehera alderantziz paratuak daudela, akats bat dela medio. Beraz, egutegian ilgora paratzen

duenean ilbehera da eta ilbehera markatzen duenean, ilgora. Datu hauetako garrantzitsuak eta kontuan hartzekoak dira, baratzetan edo egurgintzan aritzen direnentzat, bertzeak bertze.



## Akats zuzenketa

# OHARRA



## ADI BAZTAN, BERTIZARANA, BORTZIRIAK ETA MALERREKA

Etkez-etxe banatu diren 2014ko egutegietan ALDERANTZIZ MARKATUAK DAUDE ilargiaren ILGORA eta ILBEHERA.

Beraz, egutegian ilgora paratzen duenean ilbehera da, eta ilbeheran markatzen duenean, ilgora.

Hemen daude ongi markatuak ilargiaren ilgora eta ilbehera faseak. 2014 / ILGORA eta ILBEHERA faseak.

URTARRILA		OTSAILA		MARTXOA		APIRILA		MAIATZA		EKAINIA																				
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A																			
6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31					
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31

UZTAILA		ABUZTUA		IRAILA		URRIA		AZAROA		ABENDUA																				
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A																			
7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31						
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31



**ILBEHERA:** Lurretik begiratuak ilargiak egiten duen orbita, egun batetik bestera beharantz doa. Egun luzeetan landareen sustraietan akrobatikarekin gehiago dago. Garai egokia da: sustraiak eta errebolak biltzeko, lehorta behar ditugun landareak jasotzeko, kimaketa egiteko, landareak landatzeko eta larra ongarriratu eta prestatzeko.

**ILGORA:** Landareak kimatu-mortu, larra landa, goratzen...



